

Barrena

Auzo baten arrakaletan

Debabarrenerako adinekoentzako egoitza eraikitzeko lanek Elgoibarko Urazandi auzoan eragin dituzten kalteek ezinegona sortu dute auzokideen artean; Udal Gobernuak lasaitasuna eskatu du, baina oposizioak ardurak ez betetzea egotzi dio / 2-5



Errezabalgo saila lurrez bete dute, ingurua sendotzeko; datozen bi hilabeteetan euste-lan gehiago egingo dituzte. ASIER ORBEA

AZPIEGITURAK

Saihesbidea eraikitzeko obra "behingoz" hastea exijitu dute Ermuan

Saihesbidearen Aldeko Plataformak deituta, trafikoa moztu dute ziento bat herritarrek, haserre, Zubiaurre kalean / 16



Herritarrak, Zubiaurreko errepide erdian, trafikoa moztzen. ANDER GOMEZ

KIROLA

Hasier Murua eta Ainhoa Lendinez garaile, 40. Nahaste Borrastan / 12



ASIER ORBEA

OSASUNA

"Loa zaintzea osasuna zaintzea da, baina zaintzea ez da perfekzioa bilatzea" / 21



E. URRESTARAZU

ARRAUNA

'Mailari eustea izango da gure helburua; ahal bada, 'play-off-ak' jokatu gabe' / 14

Maria Bastida Longarte
EuskoTren Ligako arraunlaria



LAGATAKOA

MENDI LASTERKETA

Mikel Arriola eta Leire Olazabal gailendu dira euskararen aldeko Zuhatza Trail lasterketan / 24



NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

KULTURA

'Zaharrak berri' ikuskizunarekin hasiko dute, gaur, Deban, Iturri Ondoan kultur egitasmoa / 25

Errezabalgo egonkortze-lanek ezinegona eragin dute Urazandin

Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak deituta, Errezabalgo obrari buruzko informazio bilera izan zuten martitzenean Urazandiko bizilagunek, Aita Agirreko areto nagusian; lepo bete zen

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Debabarrenerako adinekoen egoitza eraikitze lanek Urazandi auzoan sortu dituzten kalteekin kezkatuta daude bizilagunak, eta, horren harira, informazio bilera egin zuten asteartean Aita Agirre kultur-guneko areto nagusian. Foru Aldundiko ordezkariak, enpresako arduradunak, Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkatea eta Ion Zubiaurre Hirigintza zinegotzia bildu ziren auzotarrekin, eta Udalak kontratatu duen geologoak esplikazio geoteknikoak eman zituen. Obraren egungo egoera eta aurrera begirako informazioa azaldu zuten guztien artean, eta auzokideek galderak egiteko aukera izan zuten. Tentsio uneak izan ziren. Bileraren aurretik, astelehenean lau auzotarren ezinegona jaso zuen BARRENAk.

Auzotarrak, kezkatuta

Antonio Rodriguez, Maria Angeles Zabala eta Carlos Agirre Urazandi 20ko bizilagunak dira; hain justu ere, Errezabal gunearen parean geratzen den atari-koak. Egoitzaren obra hasi zenetik denetik jasan behar izan dutela diote: zaratak, kea, hautsa... Baina hori guztia jasan beharko zutela onartuta zeukatelara zehaztu dute, obra guztiek eragiten dituzten ohiko albo-ondorioak direla iritzita. "Arropak ezin eskegita egon gara denboralean, leiho eta balkoietako markoak horitu egin zaizkigu, zarata jasanezinak izan ditugu... baina hori guztia bagenekien, eta horretarako prest geunden, badakigu-eta obra guztiek izaten

dituztela horrelakoak", esan du Maria Angeles Zabalak. Ez, ordea, arrakalak. Errepidean sortu ziren lehen arrakalak, iaz, abenduan. "Sekulako arrakala irten zen errepidean, eta espaloia errepidetik askatzen hasi zela ikusi genuen. Soplete batekin eta galipotarekin konpondu zuten berehala", adierazi du Antonio Rodriguezek, Urazandiko bizilagunen batzordeko presidentek.

Eraikineko fatxadan ere arrakalak agertu zaizkie, hain justu ere, fatxada hori konpondu berri zutenean: "Duela bi hilabete konpondu genuen fatxada. Eman genion hezetasunen eta filtrazioen kontrako tratamendu bat eta egoera txarrean zeuden pieza guztiak aldatu genituen. Dena zegoen berrituta, eta orain, arrakalak agertu zaizkigu berrituta". Kezkatuta daude arrakala horiek ekarriko dizkieten ondorioekin, neguan, batez ere: "Fatxadatik hezetasuna sartuko da neguan, euriaren eraginez, eta horrek etxe barruan ere sortuko dizkigu arazoak. Eta kalte horiek guztiak nork hartuko ditu bere gain?", galdetu dute.

Arrakalen harira, auzokideak bilera batera deitu zituen Udalak urtarrilerako. Obrako arduradunek eman zituzten azalpenak, eta lanak hasi zizutenean topatu zituzten errekaetako eta uste

Kezkatuta eta haserre daude Urazandiko bizilagunak



Aita Agirreko areto nagusia txiki geratu zen Errezabali buruzko bileran. AINHOA ANDONEGI

zutena baino kalitate txarrago lurzoruak lanak zaildu zizkietela aitortu zuten. Hala ere, ziurtatu zuten segurtasuna bermatzea zela lehentasuna. Horretarako, arrakalak monitorizatzeko sistema ezarri zuten, obrak egiten ari diren lursaila nahiz aldameneko etxebizitza-blokeak eguneko 24 orduz zaintzapean edukitzeko. "Mugimendurik txikiak ere antzematen omen ditu sistema horrek, eta arriskua balego alarmak joko lukeela esan digute. Hala ere, bizilagunak ez gaude oso lasai, arrakalak handitzen jarraitzen dutelako", gaineratu dute.

Maria Angeles Zabalak etxe barruan ere baditu arrakalak, eta armairu batzuk ezin ditu ondo itxi: "Etorri zen iazko udan teknikari bat etxera arrakalen segimendua egitera, baina ordutik nire etxean areagotu egin dira. Aseguru etxearekin egon nintzen, eta udaletxera ere jo nuen, baina nire etxera ez da beste inor etorri". Argazkiak ateratzen ditu, eta erregistratuta ditu haren kalteak, gero ordainak eskatu ahal izateko. Kaltetutako bizilagun guztiei egin diete gomendioa kalteak erregistratzeko.

Ez dira, baina, kaltetu bakarrik. 22, 24 eta 26. atarietako bizilagunak ere badituzte arazoak, baina obraren aldameneko etxeetako bizilagunak ari dira pairatzen egoerarik latzena; hain zuzen ere, 9, 11, 13, 15, 17 eta 19. zenbakietan bizi direnak. Celia Teixeira hantxe dauka taberna, eta obrak tabernan eragin dizkion kalteak "nabarmenak" direla aipatu du.



Herritar bat, galderak egiteko unean. ASIER ORBEA



Antonio Rodriguez, Maria Angeles Zabala eta Carlos Agirre. AINHOA ANDONEGI

Lurreko baldosak altxatu zaizkio, zulagailuaren dardarak eragindako mugimenduen ondorioz, eta sukaldeko atea zabaltzeko zailtasunak ditu. Horrez gain, haren eraikinaren eta aldamenekoaren artean dagoen dilatazio junta zabaldu egin dela kontatu du, eta teila-tutik ura sartzen zaie euria egiten duenean: "Hori konpon-

du beharra daukagu orain, eta guk aurreratuko dugu dirua. Inork ez digu esaten gero diru hori itzuliko diguten edo ez. Idatziz jaso nahiko genuke agiriaren batean obra honek eragin dizkigun kalteak nork hartuko dituen bere gain". Teixeira uste du enpresa "inprobisatzen" ari dela, eta arazo bat agertu ahala "hala moduz" konpontzen

dutela. Kezkatuta dago, haren negozioia kaltetuta ikusten delako.

Lur hezea

Carlos Agirrek 50 bat urte daramatza Urazandin bizitzen, eta dio auzoa oso hezea dela: "Mendiak ur asko dauka inguru honetan, eta obra egiten hasteaz bat hasi zen ura irteten. Erreka bat dator menditik, eta haren ibilbidea aldatu egin behar izan zuten. Pilarreko eraikinaren ertz batean iturria zegoen lehen, eta errepidera irteteko bidegurutzean ere beti ezagutu izan dugu ura". Horrez gain, gogora ekarri du egun bizi diren etxebizitzaren atzeko aldean, ortuak dauden inguruan, elkarki atxikitako txaletak egiteko proiektu bat egon zela orain dela 35-40 bat urte, eta proiektu hura atzera bota zutela "lur hura ez zelako eraikitzeak egokia". "Ez da lur egonkorra", gaineratu du Rodriguezek. "Katak egin izan dituztenean, 35 metroko sakaneran ura, lurra eta arbela baino ez dituzte aurkitu". Agirreraren iritziz, goitik behera zulatzen hasi direnean agertu dira arazo guztiak: "Horma goitik behera egiten hasi dira, hori ere ez dago ulertzerik, normalean alderantziz egiten da eta".

Zabala oso kezkatuta dago, eta lehen begi onez ikusten zuen proiektua gaur egun galdera ikur handi baten atzean ikusten du: "Ni poztu egin nintzen Elgoibarrerako eta eskualde osorako adinekoen egoitza bat egiteko proiektuaren berri jakin nuenean. Zerbitzu ona zela iruditu zitzaidan; gune eguzkitsuan, gainera. Baina une honetan zalantza handiak ditut proiektu horrekin. Ez dakit leku aproposa aukeratu ote duten horrelako eraikin bat egiteko. Ez dakit obra hasi aurretik behar beste aztertu ote zuten lurraren sendotasuna, eta, gaur-gaurkoz, beldur naiz. Auzoa behera datorrela pentsatzen dut batzuetan, lehen ez genituen arrakala asko ikusten ditudalako bazterretan". Rodriguezek ere zalantza egin du kokapenarekin, bereziki iruditzen zaiolako eragozpenak sortuko dizkiola auzoari: "Egoitza beharrezkoa da, eta gauza ona izango da, ez dago dudarik, baina Urazandiko auzoari ez dio onik ekarriko. Aparkatzeko arazo handia daukagu, eta egoitzaren funtzionamenduak

arazo hori ere areagotu egingo duela iruditzen zait".

Lurrez beteriko kamioiak

Auzotarren artean kezka areagotu du lurrez beteriko kamioien joan-etorria ikusteak. "Hamabost bat egunez ibili dira lurrez beteriko kamioiak aurrera eta atzera. Zientoka kamioi zenbatu ditugu eguneko, hamabost bat egunetan. Auskalo zenbat tona lur bota duten!". Euste-horma sendotzeko zereginen barruan kokatzen da lan hori. Martxoan onartu zuen Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak obra hiru hilabetez etetea sendotze lanak egiteko, baina auzotarrek ez zuten horrelakorik espero. "Euste-horma horrek urteetan bete du bere funtzioa arazorik gabe, baina hasi dira zulatzen eta orain mugitu egin dela diote. Ez digute esaten zenbat mugitu den ere; entzuten dugu hiru zentimetro izan dela, bost... auskalo!", esan du Rodriguezek.

Kamioien sartu-irtena oso handia izan dela azaldu du Zabalak ere: "Izutzekoa izan da hamabost egunetan auzoan izan duguna. Goizeko zortziak aurretik hasten ziren bueltaka. Hiru naka etortzen ziren kamioiak; batek lurra husten zuen bitartean, beste biak zain egoten ziren, eta gero, beste hiru etortzen ziren. Izugarria izan da. Egun osoan joan eta etorri. Kamioien pisuaren eraginez, errepedea hondoratu egin zen, eta ur-hodi bat puskatu. Urik gabe utzi gintuzten auzokideak sei bat orduz, abisurik ere eman gabe", adierazi du Zabalak, haserre. Izan ere, orain sartu duten lur guztia atera egin beharko dute gero: "Ez dakigu ezer, baina egoitza egiteko lur hori guztia atera egin beharko dute gero. Zalantza ez beterik gaude. Makina handiren bat ere ekarriko dutela diote, eta ez dakigu errepedeak jasan ote duen pisu hori guztia".

Obra hasi zenetik hainbat bilerak egin ditu Udalak bizilagunekin, baina, hala ere, proiektuaren gaineko informazio nahasia dutela adierazi dute bizilagunek. "Proiektua etenda dago euste-lanen ondorioz, eta beste

Zientoka kamioi ibili dira joan-etorrian azken asteotan lurra garraiatzen



Abenduan arrakalak sortu ziren errepedean. ASIER ORBEA

proiektu bat egin behar du orain enpresak", esan du Rodriguezek. "Badirudi aldaketak egongo direla; ez omen da hasieran uste zuten bezain altua izango, eta egoitzatik auzora igotzeko aurreikusita zegoen igogailua ere ez dakigu egingo duten. Gauza bera gertatzen da King-Kongeko zubiaren arrapalarekin ere. Obraren laugarren fasean etorriko direla esan digu Udalak, baina ez dakigu hori noiz izango den edo izango den ere". Rodriguezek esan du orain arte Udalarekin harreman ona izan duela beti, eskatutako informazioa jaso izan duela eskatu duenean, baina obra honekin ezinezko ekoeran bizi dela. Neurri horretako obra baten informazioa sarriago eman behar dela gaineratu du Zabalak: "Aldaketak daudenean, bizilagunoi jakinarazi egin behar dizkigute horiek, lasaiago egon gaitezen". Elgoibarko agintarien jarrera ere kritikatu du: "Haiek Urazandin biziko balira, seguru beste era batera egingo lituzketela gauzak". Rodriguez errudun bat izendatzera ere ausartu da: "Nik ez diot Udalari ezer leporatzen, ezta Foru Aldundiari ere. Hemen gauzak gaizki egin dituen enpresa izan da, hark zulatu du mendia, oso modu bortitzean. Merkeago egiteko-edo izango zen, eta orain diote metodologia aldatuko dutela. Berandu!"

Badakite obra geratzea oso zaila izango dela, baina espero dute bizilagunen segurtasuna eta auzoan bizitzeko baldintzak



Bizilagunak urik gabe egon ziren hainbat orduz, hodi bat puskatu zelako. A.O.



Kamioiak lurra garraiatzen. ANTONIO RODRIGUEZ

kolokan jartzen diren unean egongo dela beste erabakiren bat hartzeko aukera.

Informazio bilera

Obraren azken berriak emateko bilerara deitu zituzten auzotarrak

martitzenerako. "Berandu eta gaizki egin dute bilerarako deia, baina bada zerbait", adierazi zuen Rodriguezek astelehenean. Auzotarrak kezkatuta, eta haietako asko haserre bertaratu ziren bilerara asteartean.



Lurrez betetako lursaila. ASIER ORBEA

Udaleko ordezkariak, Foru Aldundikoek eta enpresakoek eman zituzten obraren gaineko azalpenak. Apirilean lurra egonkortzeko lanak hasi zituztenean konturatu ziren uste zutena baino ezegonkorrago zegoela lurra. Mikropiloteak jartzen hasi ziren, baina, hala ere, lurrak mugitzen jarraitzen zuela ikusi zuten. Maiatzaren 4an, obra geratzea erabaki zuten. Hiru geologo-talde kontratatu zituen Urdinberri enpresak, eta haiek egindako ikerketen emaitzak ikusita hartu dituzte aurrera begirako erabakiak.

Jarraipen horren ondorioz, talde teknikoek lurzoruaren ezaugarri geoteknikoak sakonago ezagutzeko beharra identifikatu zuten, aurreikusitako lanekin jarraitu aurretik. Horregatik, irizpide teknikoetan oinarrituta, azterketak zabaltzea eta, aldi berean, mendi-hegala indartzeko betelanak egitea erabaki zuten, analisia osatu bitartean.

Udalak, berriz, beste geologo bat kontratatu zuen, enpresak emandako txostenak interpretatu eta beste iritzi bat izateko. Bileran parte hartu zuen Igor Rebollo geologoak, eta hark ere baieztatu zuen Errezabalgoa terreno oso konplikatua dela. Segurtasun neurrien koefizienteak ere azaldu zituen, eta egungo egoera obra hasi zenekoa baino hobea dela adierazi zuen, eta gaineratu zuen obra amaie-

rarako are seguruagoa izatea dela helburua. Zehazki, obra hasi aurretik 1,05koa zen koefiziente hori, egun 1,13koa da, ingurua lurrarekin egonkortu ostean 1,20koa izatea aurreikusiten dute, eta azken helburua 1,50era iristea da. Koefizientea 1etik beherakoa bada, ez da segurutzat jotzen. Rebolloren iritziz, Urdinberri enpresak diseinatu duen kontingentzia plana "oso ona" da, eta "segurtasun berme guztiak" ditu. Kalkulu oso zehatzak egin dituztela esan zuen, eta oso modu kontrolatuan dihardutela lanean.

Aurrera begirakoak

Egindako azterketei esker, eremua egonkortzeko modua zehaztu dute, eta, horren barruan, bi pantaila osagarri eraikitzea erabaki dute: lehenengo pantailak etxebizitzaren eta bidearen

Uztailaren 13an hasiko dituzte egonkortze lanak eta irailerako amaituko dira

Trafikoak noranzko bikoitza izango du auzoan datozen bi hilabeteotan

inguruko eremua egonkortuko duela azaldu zuten, tokiko egonkortasuna bermatzeko; hirugarren pantailak, berriz, mendi-hegal osoaren egonkortasuna bermatzeko duela esan zuten. Bi jarduketak beharrezkoak direla nabarmendu zuten, lurra piztuta dagoelako goiko puntatik ibairaino.

Egonkortze lan horiek datozen bi hilabeteetan egingo dituzte, eta horrek auzoan eragingo dituen aldaketan berri eman zuten. Datozen egunotan jarriko dituzte auzoan zehar beharrezko seinalizazioak, eta lanak uztailaren 13an hasiko dira. Ondo bidean, irail hasierarako amaitzea aurreikusi dute.

Lan horiek egin ahal izateko, errepide zati bat itxi egingo dute, eta, ondorioz, trafikoak noranzko bikoitza izango du. Kalamua kalean gora egin beharko dute ibilgailuek Urazandi kaleraino, eta han berriz buelta hartu beharko dute. Auzotik irteteko, bestalde, Maalako biribilgunea erabili beharko da.

Horrek aparkalekuen berrantolatzea egitea ekarri du, 67 aparkaleku kendu beharko dituztelako. Udalak aurreratu zuen DMPko aparkalekua datozen egunotan zabalduko dutela, eta obrek iraun bitartean Herri Eskolan aparkatzeko aukera ere emango dutela. Hortaz, 97 aparkaleku berri egongo direla azaldu zuten, gaur egun baino 30 gehiago.



Mugimenduak antzemateko neurgailua. A.O.



Obraren goitikako ikuspegia. A.O.

Galderen txanda

Azalpenen ostean, auzotarrei eman zieten hitza, eta galdera gehienak ildo beretik joan ziren. Auzotarrak kezkatuta daude lursailaren mugimenduek sortu dituzten arrakalekin, eta baita etxeetan dituzten kalteekin ere. Pitzadurak dituzte fatxadetan zein etxeetan, errepide honduz egin da kamioien joan-etorriarekin, etxe arteko dilatazio-juntak asko handitu direla ere esan zuten zenbait bizilagunek, espaloiak ere apurtuta daudela... Horren harira, pitzaduren protokoloa martxan dutela azaldu zuen Udalak. Iaz joan ziren teknikariak etxeetako pitzadurak ikustera, urte hasieran ere egin zituzten bisitak, eta datorren astean berriz joango direla jakinarazi zieten bizilagunei, hilaren 7an eta 9an. Bisita horietan, teknikariek etxebizitzetan dauden pitzadurak aztertu eta dokumentatu egingo dituzte, eta notario aurrean jasoko dute egindako lana, "etorkizunean erreferentzia

tekniko gisa balio izateko". Txanda berri honetan parte hartu nahi duten guztiak aukera izango dute, baita aurreko txandetan parte hartu zutenek ere. Alde horretatik, lasai egoteko mezua zabaldu zuten Udaleko arduradunek, eta obra amaitzen denean kalte horiek guztiak konponduko zaizkiela agindu zieten bizilagunei.

Era berean, informazioa ez ematea leporatu zieten bizilagunek Udaleko arduradunei. Horren kontura, bizilagunekin etengabeko komunikazioa mantenduko dutela eta prozesuaren fase bakoitzean jarduketan bilakaeraren berri ematen jarraituko dutela esan zuten. Komunikazioa bermatzeko pertsona bat kontratatu dute, eta harekin harremanetan jartzeko bideak eman dituzte: 663 03 54 84 edo a.esnaola@urdinberri.com posta elektronikoa. Bizilagunek bi kanal horiek erabili ditzakete pitzaduren azterketa egiteko txandak eskatzeko eta zalantzak argitzeko.

Iritzi kontrajarriak Udaleko ordezkari politikoaren artean

Udal Gobernuak dio segurtasunez eta arduraz jokatu duela; Bilduk, aldiz, informazioa ezkutatzea eta ardurak ez betetzea leporatu dio Udalari

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Errezabalgo egoitzaren obrak hautsak harrotu ditu Urazandiko bizilagunen artean, eta Udaleko ordezkarien artean iritzi kontrajarriak daude.

Ion Zubiaurre Hirigintzako arduradunaren esanetan, "segurtasunez eta arduraz" jokatu da une oro, mugimendu edo pitzaduraren bat antzeman denean lanak gelditu egin direla, egoera aztertu, neurketak indartu eta soluzio tekniko egokiena bilatu. Obraren egungo kontrol-maila oso handia dela gaineratu du: "Inklinometroak, piezometroak, fisuometroak eta diana topografikoak erabiltzen ari dira, eta datuak etengabe aztertzen dira. Udalak kontratatutako geologoak berak adierazi digu jarraipen-maila hori ezohikoa dela eta segurtasun handia ematen duela". Zubiaurrek nabarmendu du hori guztia lurzoruak bistaratu duen konplexutasunagatik egin dela: "Hiru geoteknia-taldek, ingeniari-taldea espezializatuek eta Udalak kontratatutako geologoak aztertu dute egoera. Ondorioa da proposatutako egonkortze-lanak beharrezkoak direla".

Bizilagunen segurtasunari dagokionez, lanak kontrolpean, neurketekin eta jarraipen tekniko handienarekin, egingo dituztela ziurtatu du, eta esan du helburua dela segurtasuna handitzea eta kalteak ahalik eta gehien murriztea. Pitzaduren inguruan, Udalak garrantzitsutzat jo du kalte guztiak jasota eta dokumentatuta gertatzea. Horretarako, arrakalen protokoloa jarri dute martxan; haien esanetan, ohikoan egiten dena baino zorrotzagoa: "Normalean, obraren hasieran eta

amaieran egiten da jarraipena, baina, kasu honetan, Udalak bultzatu du obra bitartean ere egitea". Uztailearen 7an eta 9an beste aukera bat izango dute bizilagunek protokoloan parte hartzeko.

Kalteen eta gastuen inguruan azaldu du orain arte enpresaren aseguruak hartu dituela bere gain dagozkion jarduketak: "Aurrerago, soluzio tekniko berriak eta egonkortze globalaren beharrik izango duten eragin ekonomikoa aztertu beharko da. Une honetan, ordea, lehentasuna soluzio tekniko egokia gauzatzeko eta egonkortze lanak berme guztiekin egitea da".

Akatsak, hasieratik

Bilduren iritziz, hasieratik egon da akatsa obra horren planteamendu estrukturallean. Haien esanetan, Udalak egoitza egitea erabaki zuenean bi erabaki hartu zituen, Bilduren iritziaren kontra: bata izan zen Foru Aldundiari ematea egoitzaren kudeaketa osoa, "Udalak eskuak garbituz". Beste erabakia izan zen onartzea kudeaketa hori pribatua izango zela; hau da, publikoa izango zela titulartasuna, baina enpresa pribatuek kudeatuko zutela bai obra eta baita geroko egoitza ere. Lehia-keta publikora atera zuten erakuntza bera eta ondorengo hamar urteetarako kudeaketa, eta 88 milioi eurotan Viuda de Saiz enpresari esleitu zitzaion. "Viu-

Informazioa gardentasunez emateko eskatu dio Bilduk Udalari



Ion Zubiaurre eta Maialen Gurrutxaga, auzokideen bileran. ASIER ORBEA

da de Saizek Urdinberri enpresa azpikontratatu zuen, denak talde berekoak dira. 88 milioi horietan irabazi enpresarialak daude, jakina, eta enpresak berak erabaki dezake zenbat irabazi nahi duen. Ahalik eta gehien irabazteko hasieratik hasi behar du gastuak murrizten, eta hor dago akatsa". Bilduren iritziz, hasierako azterketa geoteknikoa ez dute nahikotasunez egin, "negozioa duelako" enpresak buruan: "Enpresak erabakitzen du lursailen hiru zulo egin, 33 edo 333, baina argi dago ez dutela azterketa hori ondo egin". Ikusita lursail hartatik oso gertu orain dela urte gutxi batzuk mendia erori egin zela, Bilduk uste du azterketa sakonagoa egin beharra zegoela. Urdinberri enpresa lan horietan espezialista dela esan du Bilduk, baina, hala ere, hanka sartu duela: "Zaila da ulertzen, baina hanka sartu dute, eta ematen du gastuak merkatzeko egin dutela horrela".

Gardentasuna eskatu du Bilduk

Merke egin nahia garesti iritziaren ari zaiela uste dute Bilduko ordezkariak, lanean hasteaz bat lurra mugitu eta pitzadurak agertu zirelako errepidean eta etxeetan. "Horren harira, auzotarrak galdezka hasten dira, eta gu ere bai, baina ez dago erantzun argirik". Egoeraren larritasuna ikusita, martxoko osoko bilkuran erabaki zen obra etetea. "Une horretara arte Foru Al-

dundia da erantzule nagusia, baina auzotarren bizitza eta ondasuna jokoan sartzen denean, Udalarena da ardura, eta berrir dagokio auzotarrak babestea".

Hartutako erabakiarekin bat egin zuen Bilduk, "auzotarren segurtasuna" delako lehentasuna kontu horretan guztian, baina etetearen arrazoiaren txostena eskatu zion Udalari, informazioa edukitzea: "Ez ziguten eman, orri batean laburpen moduko bat eman ziguten, beren interpretazioarekin. Eskatu ditugun txosten tekniko guztiak ukatu dizkigute; askotan, ez daukate la esanez. Nola da posible ez edukitzea?".

Bilduk ardurak ez betetzea leporatu dio Udalari. Izan ere, obra eten zenean enpresari eskatu zitzaion hileroko txosten bat pasatzeko mugimenduen neurragailuen emaitzekin: "Martxotik pasatu dira hiru hilabete, eta esaten digute ez daukatela txostenik. Gure ustez, informazioa ezkutatzen ari dira une oro". Bilduk dio idatziz, erregistroaren bidez eskatu dutela behin eta berriz informazioa, eta gaur askoren berri martitzeneko bileran jaso zutela: "Ez genekien enpresak hiru geologo-talde kontratatuta zirela ere". Bilduren iritziz, bere funtzioetan huts egin du Udalak.

Obraren eta proiektuaren aldaketek eragindako kostuak nork hartuko dituen bere gain ere galdetu dio Bilduk Udalari, baina ez du "erantzun argirik"

jaso. "Aseguruak daudela diote, momentuz enpresaren aseguruak estali dituela orain arteko gaitzesak, baina aurrerantzean zer gertatuko da? Litekeena da enpresak ere porrot egitea, fakturak handiak izango baitira, eta, deskuiduan, Udalak ordaindu beharko balitu, datozen urteetako aurrekontuetan izango luke eragina".

Datozen bi hilabeteotan auzoan izango diren aldaketan artean, DMP aparkalekuari buruzko oharzarazpena egin du Bilduk: "DMP egokitu dute aparkalekua gisa, baina Legebiltzarrean azaldu zuen Ane Beitiak Elgoibarko lur industrialen %95 kutsatuta zaudela". Horri buruzko informazioa ere eskatu dutela azaldu dute, ez dakitelako kutsadura hori zenbaterainokoa den, baina hori ere ez dietela eman gaineratu dute.

Bilduk gardentasuna eskatu dio Udalari, "eman dezala informazioa eta garbi jokatu dezala". "Auzotarrak kezkatuta eta batzuk negarrez ere etortzen zaizkigu bulegora, erantzun eske". Horren harira, Udalak kontratatutako komunikaziorako pertsonaren kontratazioa ere ez dela zuzen egin salatu dute: "Erabaki hori ez da inongo batzorde edo osoko bilkuran aztertu. Udalak jarri ditu 11.000 euro pertsona hori kontratatuzko, eta, gainera, bileran bertan onartu dute huts egin duela figura horrek. Lotsagarria!".

NIRE USTEZ

Askatasunerako jantziak



IKER MOJON
KAZETARIA

Arropa aukeratzea beti da zaila; are gehiago, Euskal Herriko eguraldiarekin: alkandora edo kamiseta? Jertsea edo jertserik gabe? Zapatilak edo zapatak? Agian, sandaliak? Ispilura begira eta hainbat jantzi saiatu, *outfit* bikaina topatu arte. Prozesu polita da, egia esanda, sortzailea, alegia, baina beldurgarria ere bai, hautu bat egin dudalako: marika naiz eta nire arropak hori argi eta garbi adieraziko du.

Dentela, *body*-ak eta emakumezkoentzat egindako arropa janzten ditut, bizitzak kolore gehiago behar dituelako, eta ez daude El Corte Ingleseko gizonezkoen atalean. Bertan dena

da iluna, grisa, marroia, eta, zortea izanez gero, agian, urdina. Hala ere, nire erabakiak galderak dakartza armairua irekitzean: Zer esango dute? Egokia al da? Arriskutsua? Neure buruari azken galdera hau egiten diodan bakoitzean, bere jatorriaz jabetzen naiz: hainbat irain, iruzkin, begirada, barre... Batzuetan, ausarta naizela esaten

"Ausartak izan behar dugu, gorroto delituek gora egiten dutelako eta bueltan direlako modaz pasa ziren jarrerak"

didate, eta amorrua ematen dit, Hollywoodeko diskurtsotik ateratako zerbait delako, eta ez dudalako ausarta izan nahi, aske baizik. Hori, hain zuzen ere, aldarrikatzen dugu feministek eta transmarribollook behin eta berriro. Goxotasunetik esaten dute; dena den, horrek agerian uzten ditu gurasokeria eta oraindik ere indarrean dagoen arau-arropak generoa daukala-, eta nik araua haustu nahi dut, behin betiko.

Zoritxarrez, arrazoia dute, ausartak izan behar dugu, gorroto delituek gora egiten dutelako eta bueltan direlako modaz pasa ziren jarrerak. Horregatik, askotan beldurrari aurre egin eta nire hautuari eusten diot, kaleak ere borrokarako gunea baitira eta babesten nauen sarea baitut: LGTBI+ mugimendua. Arbasoek borrokatu zuten guk gaur erabaki ahal izateko, emakume transek beren gorputza jarri zuten gu gaur egun bizi ahal izateko. Beraz, izan arraro, desbideratu eta anormala, eta guk oratuko zaitugu; izan ere, transmarribollook kolektiboan dihardugu -elkarretaratzean oihukatu genuen bezala-, ondorengoi kolorez eta askatasunaz beteriko mundua uzteko.

GUTUNAK

Elgoibarko kanpaiak

VICTORIA MIQUELE
ELGOIBAR

Kirola egitea, osasuntsuago jatea, lo gehiago egitea, zurruta egiteari uztea eta gogoan ez ditudan beste proposamen batzuk egitea arrunta izaten da urte hasieran.

Dagoeneko ekainean gaude, eta bakoitzak ahal edo nahi izan duena egingo zuen. Asmoak, askotan, horretan geratzen dira, asmo hutsetan. Gure irakaslea eta bere hamahiru ikasleak, ordea, menditik gertu, astean bitan elkartzeko gara yoga lantzeko.

Mendebaldeko kulturaren hamahiru zentzua beldurgarria bada ere, berritze sakonaren eta eraldaketaren zentzua da.

Gogor entrenatzen gara; irakasleak ez du sekula etsitzen arnasa ondo har dezagun, pauso egokia eman dezagun; azken finean, geure onena eman dezagun bizitzari eta maitasunari besoak zabalduz.

"Doze doze" hitzek, hanketako laztanek, eguzkiak egun batzuetan, euriaren hots leunak besteetan eta kanpoko beste elementu batzuek laguntzen digute. Batez ere, San Bartolome dorrearen irudiak atzealdean eta bere kanpaiaren hotsak erritmoa markatzen baitigute. Batzuetan hain kontzentratuta gaude, ez ditugu entzun ere egiten. Hala ere, gure klasea atseginagoa egiten jarraitzen dute.

Haiei esker, gure bakelekuan gaude, ziurrenik.

Elizako erlojuaren kanpai hotsak

A.G.G.
ELGOIBAR

Noizean behin nor edo nork bere kexa argitaratzen du Elgoibarko parrokiako kanpai-hotsak direla eta.

Azkenekoak, oharkabean edo ez, inguru horretan bizi garenon izenean edo nolabaiteko kontsentsu bat balego bezala idatzi du.

Zer esango dut, ba, nik? Urtean zehar badira loak hartzeko zailagoak gertatzen diren gauak: ardura edo kezkaren bat dudalako, bero handiegia egiten duelako edo inoiz urduri egon naitekeelako.

Erlojuaren kanpaiak ez ohi didate lo egiteko eragozpena arintzen, ezta handitzen ere. Lorik egin ezinik nagoenean, gehiagotan aditzen dut erlojua esna nagoelako, baina ez nago esna edo lorik egin ezinik erlojuaren hotsengatik. Areago, kanpai hotsak isiltasunean itzaltzen ari diren une horiek nire patxadara etortzen laguntzen dit batzuetan. Ez didate ezertxo ere soluzionatzen, ez, baina traba ere ez didate egiten erlojuaren kanpaiak.

Egia esan, ume txikia nintzenetik bizi naiz parrokia ondoan. Urteak pasatu dira ordutik, pertsona heldua naiz eta.

Hortaz, nire iritziz, ondo daude daudenetan.

Badira beste hots batzuk niretzat benetan gogaikarriak: xurgagailu eta erratz mekanikoarena; zaborra

biltzeko zerbitzuena; kale hotsa, jaiak eta antzekoak direnean; baina kolektibo batean bizi naiz, zerbitzu horiek derrigorrezkoak dira gure bizikidetzarako eta jaiak gure gizartearen parte dira.

Gizalegea eta errespetua, hiztegi mugatuta

J.A.
ELGOIBAR

Trenez nabil aspaldian, eta ez dago egun bat haserretzen ez naizena. Bai, pipertuta etxeratzen naiz askotan. Ez dut ukatuko, egunotako beroak ere izango du eragina nire aldatzean, baina ez da hori hona ekarri nauen arrazoia. Jasangaitzak egiten zaizkit trenean bizi ditudan egoera batzuk. Ez dakit neu naizen aldatzen ari dena edo gizarte den, baina aspaldian trenean ikusten eta entzuten ari naizena ez dut gustuko.

Urrutira joan gabe, astelehenean, txistua bota zuen lurrera ondoan nuen gizonezkoak. Eta ez behin; bizpahiru aldiz egin zuen tu. Kargu hartu nion. Barru-barrutik irten zitzaidan, pentsatu izan banu beharbada ez nintzatekeelako ezer esatera ausartuko. Eta zer da, eta neure kontuetan sartzeko esan zidan hark, inolako lotsarik gabe. Mututu egin ninduen. Joan den ostiralean, berriz, hartu genuen trenea lagunak eta biok Debara kontzertu batera joateko, eta bidaia osoa egin genuen bideo-deian ari zen neska kuadrilla baten elkarriketa entzuten. Oporraldiko planez hasi ziren, iji eta aja, builaka,

Barrena[®]

DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetzak eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zalora Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako
Udala



Elgoibarko
Udala



Ermuko
Udala



Mallabiko
Udala



Mendaroko
Udala



Mutrikuko
Udala



Soraluzeko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOA
Foru Aldundia

Babestutako hedabidea



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bestean arteko elkarrizketa guztiak isilduz. Gertatu izan zait beste batzuetan ere antzeko egoerak bizitzea.

Eramanezina egiten zait, era berean, tren barrukoak jaitsi gabe jendea bultzaka trenera sartzen ikusteak. Badakit presak hartuta bizi garela denok, baita hondartzara goazenean ere, baina ez dakit, ba... Kabituko gara, eta kabituek ezean, Euskotreni uda garaian zerbitzua indartzeko eskatu beharko diogu edo.

Eta *hizkuntza-erregistroa* beste kontu bat da. Elkarri irainka entzuten dut gazte jendea, direnak eta bi esanez elkarri. Itxuraz, lagun kuadrillak dira, eta normal-normal ari dira beren hizkera horretan, baina niri min egiten dit belarrira. Ez dakit neu naizen edo gizartea aldatzen ari den.

Uda honetan ere Mutriku-Saturraran bidegorririk gabe

A.Z.
ELGOIBAR

Duela aste gutxi, Gipuzkoako Iraunkortasun diputatu Jose Ignacio Asensiok bidegorri-sarean iaz egindako lanak azaldu zituen Batzar Nagusietan, eta legegintzaldi honetarako aurreikusitako berri eman zuen. Tamalez, horien artean ez dago Mutriku-Saturraran bidegorria, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planaren arabera 2021ean martxan jarri behar zena. Atzerapena Mijoa errekararen saneamendurekin lotuta dagoelako gertatu omen da, saneamendua oraindik

egiteke baitago. Beraz, saneamendurik gabe, bidegorririk ez.

Beste behin, uda honetan ere ezingo dugu Mutriku-Saturraran bidegorria erabili. Orain, 2028-2031ko laurtekoan egitea espero da. Berriz ere, promes asko bai, baina gauzatu gabe jarraitzen du bidegorriak.

Zuhatza Trail lantaldearen eskertza mezua

ZUHATZA TRAIL LANTALDEA
DEBA

Larunbatean, I. Zuhatza Trail euskararen aldeko mendi lasterketa eta mendi martxa ospatu zen, eta lantaldetik ekimenaren balorazio oso positiboa egiten dugu. Hori guztia ezinezkoa izango zatekeen boluntario, laguntzaile eta babesleengatik ez balitz.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu ekimenari ekarpen ekonomiko zein materiala egin dioten komertzioei eta babesleei, azken asteetan beraien inguruetan normalean baino korrikalari gehiago ikusi dituzten baserriarrei, ibilbidea garbitzen asteak eman eta bizkarreko minez dagoenari, denboretan segundo batek ere alde egin ez zezan aplikazioa sortu eta helmugan dortsalak zenbatzen egon zirenei, dortsalak banatzen orduak eman zituztenei, ibilbidea ondo markatu, ireki, jaso eta garbitzeaz arduratu zirenei, goizeko seietan muntaketarako esnatu zirenei, bidegurutze bakoitzean

partaideak gal ez zitezen petoa jantzi zutenei, kontsignan motxilak zaindu zituztenei, anoaguneetan eskuak laranjaz zikindu zituztenei, Deba eta Itziar artean garraiolari lanetan aritu zirenei, milaka argazki atera zituzten argazkilariei, korrikalariak zetozeला abisatzeko ziztu bizian jaitsi ziren txirrindulariei, martxa eta lasterketari hasiera emateko eztarria urratu eta birikak hustu zituzten bertsolari eta dultzaineroari, ekimena girotu zuen esatariari, Itziar Traileko lantaldeari, zuen esperientzia gurekin partekatzeagatik, eta parte-hartzaile zein animatzaile guztiei.

Baina, batez ere, egunean bertan zein hurrengo egunetan euskara ahoan duzuenoi.

Euskaraz bizi nahi dugu eta kirola ere euskaraz egin nahi dugu.

Urazandik ez du zurrumurru edo isiltasunik behar, erantzunak baizik

EH BILDU
ELGOIBAR

Duela hiru hilabete, Errezabaleko egoitzako obrak aldi baterako geldiaraztea onartu zen, inguruko errepide eta etxeetan antzemandako kalteen ondorioz. Harrezkero, hainbat gertakari izan dira – errepide nagusira isuritako urak, Urazandiko errepide eta espaloian pitzadurak, etxe batzuetan mugimenduak, aurretik zulatutako mendia berriz ere lurrez bete izana...–, Urazandiko bizilagunen

artean kezka eta ziurgabetasun larriak eragin dituztenak.

Hori horrela, EH Bilduk argi du bere udal lana oinarritzko hiru helburutara bideratu behar dela: lehenik, arazoa behar bezala kudeatzen eta udalerraren interes orokorrak babesten laguntzen duen guztian laguntzea; bigarrenik, Udalak egoera hori modu eraginkorrean, gardenean eta legezkoatasunaren arabera kudea dezan zaintzea; eta, hirugarrenik, herritarrengandik egunero jasotzen ditugun galdera, zalantza eta kezkei zorroztz erantzutea.

Hiru helburu horiek ezinbesteko baldintza bat partekatzen dute: informazio osoa, egiazkoa eta garaiz emandakoa izatea.

Hasiera-hasieratik bai ahoz, bai Lurralde Batzordean baita idatziz erregistroaren bidez ere, beharrezko datuak eskatu ditugu, antzemandako arazoaren benetako neurria eta horiei aurre egiteko hartutako erabakiak ezagutzeko. Hala ere, orain arte jasotako informazioa partziala, eskasa eta, kasu askotan, berantiarra izan da.

Jarduteko modu horren azken adibideak:

- Maiatzaren 22an, obrak egiten ari den enpresari Udalak eskatu zion "lehen txosten betearazle argi eta ordenatu baten bidez formalizatzeko egungo egoerari buruzko informazioa", eta hamabost eguneko epea eman zion horretarako. Baina ekainaren 23an, Udal Gobernuak esan zigun enpresak atzerapen

eskaera bat egin zuela, eta Gobernuak atzerapena arrazoikotzat jo zuela. Ekaina bukatuta, oraindik ez dago informerik.

- Maiatzaren 4tik aurrera, enpresak euste-plan bat egin zuen, non zuloa eta bide ingurua lurrez betetzea erabaki zuen, hiru geologia-txosten kontratatatu zituen eta Udalak laugarren bat. Aldiz, ekainaren 23an Udalak esan zigun ez zuela informaziorik guri emateko? Udalak ilun jarduten segitzen du.

- Asteartean, ekainaren 30ean, auzokoekin egindako bileraren aurretik jakin genituen geldialditik hona egindako gauza batzuk, ahoz eta inongo idatzirik gabe.

Egoera honek erantzun argia merezi duten galderak planteatzen ditu. Nagusietako bat: ez gaude arazo tekniko huts baten aurrean.

Auzotarren bizimodua eta ondasunak, etxebizitzak alegia, jokoan daude; beraz, arazo existentziala da haien zat. Erantzukizun teknikoaren gainean erantzukizun politikoa ere badago, humanoa, eta Udalaren jarduna obrak egiten ari den enpresaren erantzukizun teknikoaren gainetik sendo agertzen ez den bitartean, bere autonomiatik zuzendaritza tekniko-politiko hartzen ez duen bitartean, oker dabil eta auzotarren kezka handitu besterik ez du egingo.



Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

BARRENAk bailarako herriko festen inguruko bi ale berezi argitaratuko ditu laster

Zure herriko jaietan herritarrak ondo pasatzera gonbidatu nahi badituzu, edota zure negozioak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak ezagutarazi nahi badituzu, babestu gure edizio berezia eta jarri zure publizitatea gurean

Harremanetarako: 688 769 657 edo publi@barrena.eus-era idatzi



Aitor Guisasola, clown rolean. LUMINA

'Lumina' zirku ikuskizuna izango da Kalegoen plazan hilaren 15ean

Kale-antzerkia eta aire zabaleko zinema sartu dituzte udako kultur eskaintzan

Ainhoa Andonegi

Udara Kulturaz Blai izeneko programa aurkeztu du Elgoibar-ko Udalak uztaileko, eta, besteak beste, kale-antzerkia, zirku eta aire zabaleko zinema-emanaldiak sartu dituzte egitarauan. Atzo ekin zioten programari, Ganso & Cia konpainiaren kale-antzerki batekin; William Shakespeare idazlearen *Hamlet* obraren egokitzapen bat ekarri zuten Elgoibarrera. Keinu bizidako clown-komediaren bidez, klasiko handien parodia eginez antzerki-lanbidea erakutsi nahi izan zuten.

'Lumina' zirku

Uztailaren 15ean, berriz, *Lumina* zirku-ikuskizuna egingo dute Kalegoen plazan, 22:30ean hasita. Kolorez, argiz eta magiaz beteriko ikuskizuna izango da. Zuzeneko musika eta zirkuaz uztartuz, une bakoitza presentzia

eta emozioz bizitzera gonbidatzen duen ikuskizuna da. Denbora aurrera doa, baina gure presentziarekin bizi dugunak iraun egiten du, oroitzapenei esker. Ikusleen artean nahasten den umore txarreko clowna da, eta bidaia eta transformazio emozional positibo batean murgilduko da; hala, ikuskizunaren atal bakoitza gero eta presentzia handiagoz biziko du. Hain zuzen ere, elgoibartarren artean ezaguna da clown hori: Aitor Guisasola aktorea. Ikuskizuneko musika Musbika Ensemble taldeak jarriko du; besteak beste, Elur Arrieta elgoibartarra perkusioaren arduraduna izango da eta Elgoibarren bizi den Iraide Sarriak biola joko du.

Aire zabalean lau film

Aire zabaleko zinemaren barruan, lau film emango dituzte aurten Kalegoen plazan, gaur

hasita. Emanaldi guztiak 22:30ean izango dira.

Uztailak 3, ostirala

- 'Presidentearen tarta' (+12 urte, 105 min.)

Uztailak 4, larunbata

- 'Bufalo Kids' (euskarazko bertsioan, publiko guztientzat, 81 min.)

Uztailak 17, ostirala

- 'Futbolisimos 2. Piraten altxorraren misterioa' (publiko guztientzat, 95 min.)

Uztailak 18, larunbata

- 'Mary Anning eta dinosauroen hondartza' (+7 urte, euskaraz, 72 min.)

CEX saria jaso du Elgoibarko HRE Automation enpresak

Belaunaldien arteko erreleboa kudeatzeko eredu oso bat proposatzen du proiektu irabazleak

A.A.

Bikaintasuna sustatzen duten zentroen Espainiako elkarteak da CEX, hamabi autonomia erkidegotako erakunde publiko eta pribatuz osatutakoa; eta CEX Sariak banatzen dituzte urtero, enpresen eta erakundearen artean kudeaketa jardunbide egokiak sustatzeko. Hain zuzen ere, aurtengoa Elgoibarko HRE Automation enpresari eman diote.

Antolatzaileek proposatutako gai baten inguruan garatutako proiektua aurkeztu behar zuten lehiaketara hautagaiek. Aurten go gaiak izan dira *Belaunaldien arteko erreleboa* eta *Ezagutzaren transferentzia erakundeetan*. Bada, horiek aintzat hartuta, Elgoibarko enpresak *Transfer K* izeneko proiektua aurkeztu

zuen. Belaunaldien arteko erreleboa kudeatzeko eredu oso bat proposatzen du proiektu horrek, eta, era horretan, ziurtatu nahi dute ez dela bidean galduko alorreko adituek urteetan pilatutako ezagutza.

Udalaren bisita

Elgoibarko Udaleko ordezkariak bisitan izan dira HRE Automation enpresan, jaso berri duen CEX 2026 Sariaren harira. Maialen Gurrutxaga alkateak adierazi duenez, enpresak urteak daramatzen lan-ildo estrategiko bat balioesten du HRE Automationek lortutako aintzatespenak: "Ezagutza teknikoa eta pertsonen esperientzia kultura partekatuta, etengabeko ikaskuntza eta etorkizunerako gaitasun bihurtzea".



Palma de Mallorcan izan zen ekitaldia. GOVERN DE LES ILLES BALEARS

EXPRESS ESKAINTZAK!

X-FORCE 8.80 RH1833EO
ERRATZ XURGAGAILUA

139 €

- 100AV
- 0,44 litro edukiera
- Kablerik gabe
- 45 minutuko autonomia
- Iragazki garbigarriak
- Osagarri ugari ditu

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

YTTAE sorta
Teknosalet beltzela (magakidun beltzela)

ATLANTIS sorta
Berezi beltzela (magakidun beltzela)

Berezi eralsagarria 2000€ aurrera
Berezi eralsagarria 6000€ aurrera
Berezi eralsagarria 1000€ aurrera
Berezi eralsagarria 2000€ aurrera
Berezi eralsagarria 4000€ aurrera
Berezi eralsagarria 6000€ aurrera

poligon

San Roke kalea, 20 • ELGOIBAR • 943 744 457 / 685 756 978
www.textil lagunak.com

LAGUNAK
selektiberritza textil hegeti

Barrena
DEBARRERENKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publicitatea
BARRENA astekearian
edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657

Batzoki
— B A E —

Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...

Plaza Zaharra (Sorhuna) Erreserbak:
638 91 15 97

Gaur zortzi hasiko dituzte jaiak Urazandin, egitarau bete-betearekin

Ainhoa Andonegi

Urazandiko Jai Batzordeak prest dauka egitaraua auzoko festak ospatzeko. Uztailaren 10ean hasiko dira jaiak, 19:00etan, txupinazoarekin. Oliba-hezur jaurtiketa eta toka txapelketa egingo dituzte ondoren, eta gauean, DJ Tillak jarriko du musika. Goizaldean, apar festa izango dute. Zapataua izango da egun handia, eta goizean hasiko dituzte ekitaldiak. Josejuren historiaurreko ikuskizuna, puzzle txapelketa eta Mauixtaren kalejira izango dira. Puzzle lehiaketan banaka zein bikoteka hartu daiteke parte, eta zabalik dago izena emateko epea. Kategoria bakoitzeko lehenengo hirurek jasoko dute saria. Herri

bazkaria egingo dute ondoren, eta nahi duenak oraindik badauka tiketak erosteko aukera Celia tabernan. Mariatxiek girotuko dute zapatu arratsaldea, eta umeentzako tailerrak eta buruhandiak ere egongo dira. Gauean, Brilet taldeak kontzertua emango du, eta goizaldean, apar festa egingo dute. Domekan, umeentzako puzgarriak jarriko dituzte Herri Eskolan, eta haientzako apar festa egingo dute jaiak amaitzeko.

Errifaren zozketa

Jai Batzordeak eskerrak eman dizkie Udalari eta jaien babesleei, eman dieten dirulaguntzagatik. Horri esker, etxetresnaz beteri-ko bi otarre prestatu dituzte



Mauixta txaranga, Urazandin. ASKASIBAR

errifaren zozketarako, eta etxetresna horiek bere beharren arabera aldatzeko aukera izango du irabazleak. Domekan egingo dute zozketa, 15:00etan.

Petanka probatzeko aukera izango dute herritarrek

A.A.

Toletzeko parkean petankan jokatzeko kantxa egin dute, eta, arduradunek jakinarazi dutenez, herritar ororentzako dago zabalik. Petankan jokatzeko hasi nahi duenak probatzera joateko aukera dauka, egunero, 11:00etan eta 18:00etan. Adin guztietako lagunentzako egin dute deialdia, petankaren eta jubilatuen artean

egiten den lotura apurtu nahi dute eta. Kirol horretan jokatzeko materiala ere han bertan izango dute eskura; beraz, probatu nahi duenak ez dauka ezer eraman beharrik. Javier Uriarte petankazaleak adierazi duenez, aurrera begira gustatuko litzaieke petanka kluba sortu eta inguruko herrietako taldeen aurka lehiatzea.



Petanka-kantxa. ASIER ORBEA

Lila Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea, zabalik

Lila Sarien bosgarren aldia martxan da, eta uztailaren 17ra arte egongo da zabalik hautagaiak aurkezteko epea. Edozein norbanakok zein erakundeak aurkeztu ditzake hautagaiak, labur.eus/lilasaria2026 estekaren bidez edo Aita Agirreko sarreran dagoen hautetsontzian utzita. Hain zuzen ere, udalerriari emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen nabarmendu diren pertsonak zein erakundeek egindako lana saritzen da, eta Elgoibarko bizitza sozial, hezitzaile, politiko, ekonomiko eta kulturalean zein

kirol arlokoan egindako ahaleginak nabarmentzen dira.

Lehen Lila Saria Sanlo Eskubaloitza Taldeak jaso zuen, emakumeen kirola sustatzeko egindako lanagatik; bigarrena Itziar Ajuria Elgoibarko Ikastolako lehen andereñoarentzat izan zen; eta hirugarrena Haizea emakume taldeak jaso zuen, herriko emakumeen bizitzetan duen eraginarengatik. Iazko saria, bestalde, Jasone Osoro idazlearentzat izan zen, haren ibilbide pertsonal eta profesionalean feminismoaren alde egindako lanagatik. Irailaren 17an banatuko dituzte sariak.

Laila Isastik eginiko irudia, Umeen Eguneko kamisetara

Sanbartolomeetako Umeen Eguna girotzeko kamisetak aterako dituzte, eta, horretarako, marrazki lehiaketa antolatu dute. 40 lagunek hartu dute parte, eta horien artean hamar finalista aukeratu dituzte antolatzaileek. Kultur Kafean jarri zituzten ikusgai, eta 80 herritarrek eman zuten botoa. LH3ko Laila Isasti izan da irabazlea.



ASIER ORBEA

Festa giroan pasatu zuten asteburua Idotorben



MIKEL ASKASIBAR



MIKEL ASKASIBAR

Ekainaren 29an izaten da San Pedro Eguna, eta haren omenezko jaiak ospatzen dituzte Idotorbe auzoan. Izan ere, festa giroan pasatu zuten asteburua, eta ez ziren falta izan musika zein dantza emanaldiak, umeentzako jolasak eta prozesioa. Txapelketek ere izan zuten lekurik: hain zuzen ere, mus txapelketan

Conde eta Narbaiza izan ziren txapeldun, eta bola-jokoan, berriz, Jon Ibarluzea. Errifaren zozketan Javi Martinezi egokitu zitzaion lehen saria, eta bigarrena Ramon Arigarentzat izan zen. Argazki guztiak barrena.eus/elgoibar helbidean daude.

NIRE USTEZ

Ogi eta sagardo artean, meloiak

ENEKO ETXANIZ
IKASLEA

Ikerrek eta Alaitzek mahai gainean jarritako meloiari kosk egin beharrea naiz neu ere. Ikerrek meloiaren lekuan ogia eta sagardoa proposatzen zituen, baina, tira... Egoera irudikatzearekin Jesusen azken afaria etorri zait burura. Ados, sagardoari urruti samar geratzen zaio odolaren tankera, baina grazia egin dit bi mahai-inguruen arteko parekotasunak: bata, Jainkoaren semearena eta haren hamabi apostoluen; bestea, mundua konpontzeko saiakera traketsetako batean filosofatzen diren bertulakideena.

Parentesiarekin tentsioa apur bat apalduko genuelakoan, itzul gaitzen harira. Jende askok baztertzaitzat jo du aurtengo GGB eguneko bazkariko parte-hartzea 18 urtetik gorako kideentzat mugatu izana. Uler dezaket 2009an eta 2010ean jaiotakoek beren burua baztertuta sentitu izana, baina ez dut uste bazkari hau aurrera eramateko lanetan ari denari

"Ez dut uste bazkari hau aurrera eramateko lanetan ari denari bazterkeriaz jokatu izana leporatu dakiokenik"

bazterkeriaz jokatu izana leporatu dakiokenik, lehen aldiz adinaren arabera erabaki bat hartzeagatik.

Lanean ari denak erabakiak hartzeko erabilitako irizpideak eztabaidagarriak izan daitezke, eta horretan ados gaude denok. Lanean ari garenok argi daukaguna da Gune Askearen funtzioa norbanako oro aske eta seguru senti dadin beharrezko baldintzak bermatzea dela, gune horren askatasuna noiz urratuko zain egon gabe. Bazkariaren harira hartutako erabaki batek sortu duen harrabotsa ikusita, orain geure buruari galdetzen diogu: gaitzesgarria inor kanpoan uztea bada, nola erantzun dugu inor bestelako arrazoiengatik Gune Asketik kanporatu behar bada?

KLIK

Ilunabarra Zumaiian

SAIOA RODRIGUEZ
ARGAZKILARIA



Zumaiako Itzurun hondartzan, ilunabar batean.



SEMAFORO

Hondakinak, ibaira

"Altzolako etxeetako hodiedatik ibaira joaten dira hondakinak, eta ur gutxi dagoenean, bertan geratzen da zikinkeria guztia. Usain oso txarra botatzen du; sekulako kiratsa. Hori konpondu egin beharko litzateke".

Belarra zaindu egin behar da

"Mintxetako igerilekuetako belarra oso txarto dago aurten; uste dut sekula ez dudala horren lehor ikusi. Lurra bera ere oso gogorra dago, eta kosta egiten da eguzkitakoei eusteko burdinazko tripodea sartzera. Belarra hobeto zaindu behar dela iruditzen zait".

**Usain txarra kalean**

"Azkenaldian, behin baino gehiagotan ohartu naiz Kalegoen plaza inguruan usain txarra egoten dela. Nahaste Borrasteren egunean sumatu nuen azkeneko, baina aurretik ere konturatuta nengoen. Estolderietatik irteten den kiratsa dela esango nuke. Herriko plaza izanik, iruditzen zait kontu hori zaindu egin beharko litzatekeela".



Aterkings taldeko kideak. JUXE ARETA GOÑI

"Gure artean ondo konpontzen garen heinean, bizitza luzea izango du Aterkings taldeak"

ALBERTO GONZALEZ

ATERKINGS TALDEKO GITARRA-JOLEA ETA TEKLATU-JOLEA

Aterkings talde historikoak hirugarren LPa kaleratu berri du, bi hamarkadaren ondoren: 'Nun ibili haz?'

Ainhoa Andonegi ELGOIBAR

Iñigo Goikoetxea (abeslaria), Mikel Txurruka (gitarra), Alberto Gonzalez (gitarra eta teklatura), Martxelo Mendizabal (bateria) eta Amets Etxaniz *Olazar*-ek (baxua) osatzen dute taldea, eta Xabier Navaroren Musikorta estudioetan grabatu dute beren azken lana. Hamahiru kantako diskoa da, eta horietako hamar euskaraz dira.

Zer adierazi nahi izan duzue disko horrekin? Zergatik orain, hogeituro geroago?

Jende gehienak pentsatu izan du taldea utzita gurea, baina, egia esan, beti mantendu izan

dugu entsegu lokal bera, eta barikuetan han elkartzen gara entseatzeko. Azken urteetan kontzertu gutxi eman ditugu. Kontua da *Olazar*-ek [32 urte] ez beste guztiok 50 urteak beteak ditugula eta zama hori igarri egiten dela. Kantu berriak sortu izan ditugu, eta iazko helburua Amorotoko estudioan Jotarekin batu [Xabier Navarro, Kafe Antzokiko soinu-teknikari mitikoa] eta diskoa grabatzea zen, materiala eta gogoa bageneukalako. **Zein estilotako diskoa da? Nola definituko zenukete azken lana?**

Hasierako estiloa mantentzen dugu. Punka eta rock-and-rolla

nahasten dituen musika bizia egiten duen taldea gara. Radio Nacionaleko Radio 3 irrati-katean punk-and-rolla egiten gurea esaten zuten, eta etiketa egokia izan daiteke hori. Bi bertsio sartu ditugu: Stranglers taldearen *Go, Buddy Go!* (Marijo) eta Australiako Radio Birdman taldearen *Death by the Gun*.

Ba al duzue kontzerturik aurreikusita? Elgoibarren jotzeko asmorik? Uztailaren 31n Gasteizko alde zaharrean joko dugu, eta urritik aurrera kontzertuak emango ditugu, Bergaran eta Bermeoko Kafe Antzokian. Elgoibarren orain dela gutxi jo genuen, otsailaren 28an, gaztetxearen 40. urtemugaren baitan [Kinki Boys taldeak osatu zuen kartela].

Rockero zaharrak ez direla inoiz hiltzen dio esaerak. Aterkings ere bizirik dago. Zein da zuen egungo egoera? Zertan diharduzue?

Nahiko libre ibili izan gara beti, diskoetxeekin eta managerrekin askorik lotu barik. 2005-2010. urteetan egiten genuen musika estiloa nahiko modan jarri zen Estatuan, eta managerren eta agentzien deia jaso genuen haiekin lan egiteko. New York Dolls, Gluecifer, Eddie and The Hot Rods, Baboon Show eta Dictators talde mitikoekin jotzeko aukera izan genuen, eta Madril, Gijon, Oviedo, Burgos eta Kantabria aldean ibili ginen jotzen. Kike Turmixek ere asko lagundu zigun Estatuan gure musika zabaltzen... 2010etik aurrera, asmoa beti izan da lokalera joan eta lagun artean jotzea, presiorik gabe. Afizio gisa beti.

Ni neu Los Paniksekin ere ari naiz [Atom Rhumba, Capsula... taldeetan aritutako musikariak osatzen dute], eta, lantzean behin, Irungo musika eskolako irakasleekin elkartzen naiz, Pink Floyd bertsioak egiteko... Martxelok bere kasa sortzen du etxean... Bestela, betiko martxan gabilta. Lanean, familian eta horretan guztian joaten zaigu denbora.

Urte asko pasatu dira Aterkings sortu zenutenetik. Uste zenuten horrenbeste iraungo zuenik taldeak?

Eboluzio lasaia izan da. Jotzen hasi ginenean, 2000. urtean gutxi gorabehera, bagenekien Euskal Herrian eszena bat zegoela gure musika estiloaren inguruan, baina hiriburuetan zegoen kokatuta; Gasteizen, Hell Dorado aretoaren inguruan; Donostian, Buenvistako lokaletan; eta Bilbon, Gure Txoko taberna inguruan. Eszena horrek bizirik dirau oraindik, eta musikariak, aktoreak, musika kazetariak, artista grafikoak, margolariak, argazkilariak eta kultur eragileak elkartzen dira kontzertuak eta antzekoak antolatzeko. Giro horretan murgildu izan gara beti, eta aspalditik ezagutzen ditugu, esaterako, Iñaki Urbizu *Pela* [egun, Marky Ramonerekin ari da], Iñaki Lopez kazetaria, Patricia Lopez Arnaiz aktorea... Haien eboluzioa gertutik jarraitu dugu, asko ikasi dugu haiengandik, eta, era berean, hain ezagunak ez diren lagunek ere asko eman digute. Inportantea da hori ulertzea, gure ibilbidean babes handia jaso dugulako eszena horrengandik. Eta auzolan antzeko horretan, guk geuk Markina Shots rock jaialdia sortu genuen, *underground* eszenari babes emateko. Esan bezala, eszenako jendeak asko lagundu digu, eta, eskerrak emateko, lagun horien guztien konpainian aurkeztu genuen diskoa, maiatzaren 16an. Bazkaltzeko 100 bat lagun elkartu ginen, eta gero, disko osoa jo genuen Markinako Antsotegi jatetxean.

Zer aldatu da urte hauetan guztietan taldean?

Adinarekin gauzak erraztu egin ditugu; saiatzeko gara prak-

tikoa izaten, eta jotzera joaten garenean, normalean aurretik bazkaldu egiten dugu elkarrekin; eta kontzertua amaitutakoan, etxera bueltatzen gara. Aterkingsen ibilbidearen hasieran, jotzera joaten ginen eta gero gauak agintzen zuten. Nahiko konformistak gara, eta ez gara, normalean, haserretzekoak. Gure artean ondo moldatzen garen heinean, bizitza luzea izango du Aterkings taldeak.

Eta zuek nola aldatu zarete?

Beti egin dugun musika izan da "antzinako eran". Antzinako rockaren influentzia jaso dugu, batik bat: Chuck Berry, Little Richard, 70eko hamarkadako taldeak... Pertsona moduan ere ez gara asmo handikoak. Apalak gara. Harrokeriaz eta inbidiaz josita dago musika mundua. Giro horretatik aldentuta gaude gu, eta guretzat musikak jarraitzen du izaten zaletasun bat. Gure asmoa beti izan da ondo pasatzea, disfrutatzea, lagun kontzertuetara joatea, lagun berriak egitea... Batez ere, musika egiten duen lagun talde bat gara. Zuzenekoetan ere hori transmititu izan dugu.

Talde asko ari dira berriz bueltatzen... ez al da 6nemen9ren itzulerarik aurreikusten?

Taldeakideen artean erlazio oso ona mantendu izan dugu beti, baina jotzeko ez gara sekula elkartu.

Nola bizi duzue musika gaur egun?

Egun, rock-and-rollak ez dauka gu gazte ginenean zeukan bulzadarik. Gu nerabeak ginenean, eztanda halako bat gertatu zen: Kortatu, RIP... 90eko hamarkadan hasi ginen jotzen. Orduan tximadunak ziren gaur burusoiak dira, eta gure kontzertuetara etortzen dira.

Beste ezer gehitu nahiko zenuke?

Esperientzia polita da musika talde bat. Alde onak dauka: sorkuntza, esperientziak partekatzen dira, eszenatokiak bere adrenalina dauka... Bestetik, musika mundua inbidiaz eta harrokeriaz josita dago. Ez da mundu erraza, eta bertatik bizi nahi dutenentzat prekaritatea da nagusi, nahiz eta marketinaren laguntza izan. Hala ere, lagunartean handia dago, eta guk bide horretatik jo izan dugu. Euskal Herriko eszena *rokandrolleroari*, jende horri, eskaini diogu diskoa, bidelagun izan dugulako.

"Harrokeriaz eta inbidiaz josita dago musika mundua; gu saiatzeko gara hortik aldentzen"

Errekorra ondu du Hasier Muruak 40. Nahaste Borrasten

Berezia izan da aurtengo Nahaste Borraste, 40. urteurrena ospatu dutelako, proba irabazi duten kirolari ugarik parte hartu dutelako eta gizonezkoetan errekorra ondu dutelako. Ainhoa Lendinez eta Hasier Murua gailendu dira proban.

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Joan den urrian Idotorbeko txirindulari igoera irabazi zuen Hasier Murua Perezek, azaroan azkarrena izan zen Karakateko Igoeran, eta joan den barikuan Nahaste Borraste irabazi zuen. Hala, Elgoibarko kirol proba herrikoien trilogia osatu du, hiru probak estreinakoz eta jarraian irabazita.

Errekorra ondu

Garesti zegoen garaipena aurtengo Nahaste Borrasten, herri triatloia irabazia duten hiru lagun lehiatu baitziren: proban jaun eta jabe den Iñigo Lariz Azkue –hamar garai-pen ditu–, Mikel Gurrutxaga Barruetabeña –2025eko eta 2023ko irabazlea– eta Iker Beristain Astigarraga –2024ko irabazlea–. Txapel-dunen arteko lehia horretatik txinpartak espero zitezkeen, eta errekorra ontzea izan zitekeen ondorioetako bat. Eta halaxe izan zen, baina orain arte garai-penik lortu gabeko gonbidatu batek egin zuen marka. Bero sargoria ez zen oztopo izan Iñigo Larizek oraingo ibilbidean 2016tik zuen errekorra ontzeko (17.34). Txapel-dunei aurrea hartuz, Hasier Muruak irabazi zuen proba, eta 16 minutu eta 58 segundoan ezarri zuen errekor berria, Larizena 36 segundo onduta.

Iaz, Larizen errekorretik geru geratu zen Mikel Gurrutxaga; hain justu ere, lau segundora (17.38). Aurten, txapeldu-

norde izan da, 17.12ko denborarekin; hau da, orain arte egin duen denborarik onena eginda. Muruak 14 segundoko alde atera zion helmugan Gurrutxagari. Lariz ailegatu zen hirugarren postuan Kalegoen plazako helmugara, 17.55eko denbora eginda. 2022tik lehiatzeke zegoen; hain zuzen, hamargarren garaipena lortu zuenetik.

Sei emakume, aspaldiko kopuru handiena

Emakumezkoen presentzia txikia izan da beti Nahaste Borrasten; hainbat ediziotan Ainhoa Lendinez Garate izan da partaide bakarra. Kimetz elkartekoak saiatu dira emakumeen parte hartzea sustatzen, baina antzuak izan dira ahaleginok azken urteetan. Aurten, aldiz, sei emakume parte hartu dute. Ainhoa Lendinez izan zen azkarrena, beste behin ere (22.10), eta hamaseigarren txapela bururatu zuen. Ainhoaren ahizpa Nerea sailkatu zen bigarren postuan (2.29) eta Maria Amundarain hirugarrengoa (28.56). Sailkapen guztiak, probako laburpen-bideoa eta argazkiak barrena.eus webgunean daude.

Elgoibarko kirol proba herrikoien trilogia osatu du Hasier Muruak




45 lagunek parte hartu dute aurten, tartean sei emakumek. ASIER ORBEA



Hasier Murua, ezkerrean, azken metroetan ASIER ORBEA



Murua garaipena ospatzen. ASIER ORBEA



Partaideak zakuaren proban. ASIER ORBEA



Partaideak Errosario kalean. ASIER ORBEA



Emakumezkoen podiuma ASIER ORBEA

Papanatas eta Katukeller taldeak gailendu dira hiruko saskibalo txapelketan



ELGOIBARKO SASKIBALOI TALDEA



ELGOIBARKO SASKIBALOI TALDEA

Hamabost talde lehiatu ziren Elgoibarko Saskibalo Taldeak laugarrengez antolatu zuen hiruko saskibalo txapelketan. Gazttxoen arteko lehiari, Papanatas taldea gailendu zen, Airball Experts taldeari 14-11 irabazita. Seniorren arteko finala Eibarko Katukeller eta Elgoibarko Dinamo de Kalimotxo taldeek jokatu zuten, eta

eibartarrak gailendu zuten (15-14). Hala, Dimamok ezin izan zuen lehen edizioan lortu zuen garaipena errepikatu. Carlos Lahozek, Richard Aranzabalek eta Maria-no Alvarezek osatzen dute makina bat hiruko saskibalo txapelketatan parte hartutakoa den taldea.

San Miguel rallysprinta jokatu dute bihar

Asier Orbea ELGOIBAR

XVII. San Miguel rallysprinta jokatu dute bihar; hirugarren- goa, 2024an proba berreskuratu zutenetik. Azken hiru ekitaldiak EME automobilismo kirol klubak antolatu ditu, autoen munduan emakumezkoak bistaratzeko helburuarekin sortu zuten taldeak. Aurten, 56 auto lehiatuko dira Etxebarri eta Elgoibar arteko errepidean. 12:00etan itxiko

dute Aiestiarako errepidea, eta desbideratzea Eibar-Ixuatik egin beharko da. Irteera Elgoibarren egongo da, Metala parean, eta 13:00etan irtengo da lehen partaidea. Hiru txandatan lehiatuko dira, 10,63 kilometroko ibilbidean. Partaideak herriko kaleetan barrena joango dira irteera punturaino. Sari banaketa ekitaldia Etxebarrin egingo dute, 19:00etan.

Euskadiko txapelketa

Iaz, 63 autok parte hartu zuten, eta, hain zuzen ere, EME taldeko Aitor Saizar eta Alazne Apalantza gailendu ziren. Bi emakumezko pilotu egongo dira aurten, Mirari Arruti eta Monika Muñoz, eta bi emakumezko kopilotu debuta egingo dute, Aiora Urbieta eta Oroitz Sanchez markina-xe-meindarrek.



Partaide bat, Urtiako errebueltan, iazko rallysprintean. MIKEL ASKASIBAR

Euskal selekzioaren aldeko argazkia bihar, zapatua

Munduko Futbol Kopa jokatzeko ari dira AEBetako, Mexikoko eta Kanadako estadioetan, eta, horren harira, herriko talde batek euskal selekzioaren aldeko argazkia ateratzeko dei egin du, biharko. Bolatokiko parkean elkartuko dira argazkia ateratzeko, 13:00etan. Herrietarrak eta herriko kirolariak animatu nahi dituzte argazkian parte hartzera, eta, bide batez, eskatu dute euskal selekzioaren elastikoarekin eta ikurri-narekin joateko.

Ekimenarekin bat egin duten herriko eragileen berri ere eman dute, hala nola: Elgoibarko EH Bildu, Elgoibarko



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA

Sortu, Elgoibarko Gazte Asanblada, Morkaiko Mendizale Elkarte, Elgoibarko Duintasuna Elkarte, Jo Ta Sua Taldea, Elgoibar 1936 eta Taupa-

da Antzerki Taldea. Edozelan ere, beste inork bat egin nahi balu 605 77 23 85 telefono zenbakira deitu dezakeela esan dute.

Dena prest LaRoita erronkarako

LaRoita erronkaren seigarren ekitaldian lehiatuko diren hamabi erronkariak prest daude lehiarako. Eta, era berean, antolatzaileek prest dute kirol erronka jantziko duen egun osorako egitaraua. Mutrikuko portuan hasiko dute estreinakoz taldeetan jokatu duten erronka, 09:30ean. Youtuben zuzenean emango dute. Karakatetik jaitsi ostean, sari banaketa ekitaldia Maalan egingo dute, eguerdian, eta 13:00etan hasiko dute egunaren bigarren zatia, Mauxitxa txarangaren kalejirarekin. Sig-mako aparkalekuan bazkalduko dute 475 lagun inguruk. Sigma-tik DJ ibiltariak gidatuta itzuliko dira herrigunera, 18:30ean.



Nerea Sasiain, iaz. ASIER ORBEA

Gauean kontzertuak izango dira, gatzetxean, 21:30ean hasita: Kostako Sound System –reggaea eta rapa–, Jeizy's Tyros –punk rocka–, Mugi Panderoa –erronomia– eta Txola ta Potxola –DJ saioa–.

"Telmo Deun taldean daukagun giroa gustatzen zait gehien arraunetik"

MARIA BASTIDA LONGARTE ARRAUNLARIA

13 urterekin eman zuen izena Zumaiako Arraun elkartean, eta aurten, 16 urterekin, lehen mailan lehiatuko da, Euskotren Ligan. Taldeko gazteena da

Ainara Argoitia MENDARO

Madridtik iritsi berri hartu zuen BARRENA, astelehenean, Maria Bastidak (Mendaro, 2009). Buitrago de Lozoyan jokatu zuten, asteburuan, estreina estropada, eta zazpigarren sailkatu ziren zortzitik. Bihar eta etzi, berriz, Bilbon eta Zierbenan lehiatuko dira, hurrenez hurren, eta "dena emateko ilusioz" uretaratuko dira. **Lehorrekoa izanda, zerk bultzatu zintuen arraunean hastera?**

Kirola egin nahi nuen, zerbaitetan saiatu, eta, ordurako nire neba Zumaian arraunean hasia zenez, probatzea erabaki nuen. Aurretik, euskal dantzan eta balletan ibili nintzen, baina ez nuen dantza oso gustuko, eta laga nituen biak. Hiru bat urte egon nintzen kirolik egin gabe, eta DBH1en erabaki nuen Telmo Deunen izena ematea. Zalantza egin nuen futboleko hasi edo zer, baina arrauna aukeratu nuen, eta ez naiz damutzen.

Probatu eta gustatu. Zer topatu duzu Telmo Deun arraun elkartean?

Giro ona. Infantiletan hasi nintzen, bateletan. Gero, kadeteetan, bateletan aritu nintzen lehenengo, eta iaz, kadeteetako bigarren urtean, trainerillan ere bai. Espainiako Txapelketarako sailkatu ginen, gainera, eta horrek izugarri motibatu ninduen. Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketak jokatu genituen iaz, eta hiruretan bigarren gelditu ginen, Tolosaldekoen atzetik. Gogorra da arrauna, baina, egia esan, oso lagun onak eman dizkit kirol honek. Taldean oso giro ona daukagu, eta hori gustatzen zait gehien arraunetik. Bestela, oso kirol sakrifkatua da, bai. Asteaz sei egunez entrenatzen gara, egunean ordu eta erdiz, baina arratsalde osoa ematen dut Zumaiara joan, entrenatu eta bueltatzen. Neguan, gimna-

sioan egiten dira sei entrenamendu saiotik lau, eta larunbatero eta igandero uretara irteten gara entrenatzera. Udan, berriz, indarra egiteko ariketa batzuk egiten ditugu batzuetan gimnasioan, baina uretan amaitzen ditugu entrenamendu guztiak. Egia esan, diziplina handia behar da, ikasketak [batxilergoko lehen urtea osatu du] eta kirola uztartzeko, baina oso kirol ederra da. Denbora ondo antolatzen ikasteko ere lagungarria da. Ni neu oso gustura nabil, nahiz eta arraunean ibiltzeak denbora kentzen didan kuadrillakoekin egoteko.

Arraunlari on batek zer ezaugarri behar ditu? Eta zeintzuk dira zure dohainak?

Esango nuke diziplina eta indarra behar direla ezinbestez. Eta nire dohainak... saiatzen naiz gogor entrenatzen.

Iaz, Euskotren Ligara itzuli berritan, laugarren postuan amaitu zuen Telmo Deunek denboraldia. Zer erronka jarri diozue zeuen buruari aurtengo?

Oso emaitza ona lortu zuten iaz, baina, hala ere, bederatzi lagunek utzi zuten taldea, eta oso talde gaztea daukagu aurten. Hamazazpi lagun gara, eta horietatik sei gazteak gara; seitik bost, gainera, lehenengo urtekoak. 19 urte ingurukoa da gure taldean batez besteko adina. Neu naiz gazteena, baina, berez, bost gara nire jaioturtekoak. Aurten, mailari eustea izango da gure helburu nagusia, eta, ahal dela,

"Aurten, mailari eustea izango da gure helburua, eta, ahal bada, 'play-off'-ak jokatu gabe"

play-off-ak jokatu gabe; arriskurik hartu gabe.

Kike Manterola duzue entrenatzaile; historiko bat Zumaian.

Bai, hori da. Urtero esaten du laga egingo duela, baina, zorionez, hor jarraitzen du, eta hamabosgarren urtea izango du aurten. Taldean, bestalde, badaukagu hiruzpalau arraunlari urte batzuk egin dituztenak hemen, eta uste dut ekarpen handia egingo dutela haiek ere. Guk badugu konfiantza geure buruarengan, eta, ondo entrenatuz gero, lan ona egin dezakegula uste dugu.

Arraun Lagunak, Tolosaldea eta Orio izan zenituzten iaz beti aurretik. Aurten ere haiek izango dira zure aurkari nagusiak?

Ez dakit, antzeko denboretan dabilta asko. Nik neuk Arraun Lagunak taldekoak beste maila baten ikusten ditut.

Gaztea zara oso, eta azkar egin duzu lehen mailara arteko bidea, baina izango dituzu, seguru, sekula ahaztuko ez dituzun egunak ere. Adibidez?



Maria Bastida Longarte mendaroarra. LAGATAKOA

Espainiako Txapelketarako sailkatzeak egin zidan ilusioa, us tekabekoa izan zelako. Hori eta 16 urterekin lehen taldean arraun egiteko aukera izatea dira berezienak. Egia esan, oso urduri hasi dut denboraldia, baina tira, uretara sartzeaz batera ahaztu egiten dira urduritasunak.

Jarraitzaile sutsu eginda dituzu etxeokak. Ikusi besterik ez dago sare sozialetan eta!

Bai. Bereziki, gurasoak daude oso zaletuta. Asteburuan Pirinioetara joatekoak ziren, baina, eguraldi txarra iragarri zutenez,

Madriden azaldu ziren, estropada ikustera. Babes hori estimatzen da.

Ametsik baduzu?

Noizbait Kontxarako sailkatzea izan daiteke bat.

Ezer gehitu nahiko zenuke?

Animatuko nituzke gazteak arrauna probatzera. Zailtasun handiak izaten dira urtero taldeak osatzeko, eta arraunak tradizio handia duen herrietan ere kosta egiten da gazte jendea erakartzea. Gure taldean, bi-hiru ez beste guztiak Zumaiatik kanpokoak gara.



Zumaiako emakumezkoen talde nagusia; behean, makurtuta, Maria Bastida, ezkerretik hirugarrena. LAGATAKOA

Alternative Forest tekno-festa egingo dute gaur eta bihar, gauez, Ospas-gainen

Garraio zerbitzua antolatu dute joan-etorrietarako, tren estazio paretik

Ainara Argoitia MENDARO

Garai batean Kilimon futbol taldearen zelaia izan zen Ospas-gaingo laugunea dantza-pista eta tekno musikaren zale direnen topagune bihurtuko da gaur eta bihar, hilak 3 eta 4. Izan ere, abangoardiako musika elektronikoa sustatzea helburu duen Alternative Division taldeak Alternative Forest jaialdia egingo du han, herri-gunetik aparte; house, elektro eta tekno musika uztartzen dituen jaialdia.

Gaur, barikua, arratsaldeko seietan hasiko dute jaialdia, eta goizeko zazpitan amaituko dute bihar lehen eguneko; bihar, berriz, arratsaldeko lauretatik goizeko zortziak arte izango da musika Ospas-gainen. Sarrerak, berriz, salgai daude Interneten. Bi egunerako sarrerak 60 euroan jarri dituzte



Iaz Mendaron egin zuten tekno-festa. ALTERNATIVE DIVISION

salgai, baina bakarka ere erosi ahal izango dira: gaurkoa 30 euroan, eta biharkoa, 35 euroan.

Hamaika disko-jartzaile arituko dira guztira, nazioarteko asko. Honako hauek: Nikolas, Lutz, Ivan Smagghe, SONS,

Javier Carballo, Kinetic, Ildec, Arista, Borja S, Koldo Intermusic eta Hugo. Antolatzaileek aurreratu dute janari-furgoneta bat izango dela Ospas-gainen, jan-edanerako. Azpilgoetan dago Ospas-gain, gain batean, eta

jaialdira joan-etorriak egiteko garraio zerbitzua ere jarriko dute antolatzaileek, aurreko urteetan moduan. Tren estazio ondotik irtengo dira furgonetak, eta bete ahala egingo dute gorako nahiz beherako bidea. Era berean, eguraldiak ekintzak zenbateraino baldintzatzen dituen jakitun, karpa bat jarriko dute antolatzaileek han.

Aitor Etxeberriaren margolanak

Aurten, nobedade gisa, Aitor Etxeberria margolari eta eskulturagile mendaroarraren obraren zati bat proiektatuko dute Ospas-gainen. Artistak berak zehaztu duenez, azken bost urteetan egindako margoei egindako argazkiak aukeratu ditu. "Ez nago oso jantzita han jarriko duten musikan, baina ahalegina egin dut ustez musika horrekin bat datozen margolanak aukeratzen. Ez dakit asmatu dudan edo ez, baina saiatu naiz, beren musikak lagunduta, gustagarri izan daitekeen zerbait eskaintzen", aitortu du. Proiektzioaz gozatzeko eta atsedean hartzeko, palet batzuekin egindako sofak jarriko dituzte antolatzaileek.

Iosu Juaristik eta Aner Buenok bukatu dute Pirinioak airez zeharkatzeko X-Pyr proba

Ekainaren 25ean, arratsaldean, amaitu zuten abentura hori, 23. postuan

A.A. MENDARO

Ekainaren 21ean abiatu ziren, Hondarribiko hondartzatik, X-Pyr lasterketako parte-hartzaileak; 50 bikote guztira. Tartean ziren lau euskal herritar: Mattin Iñiguez pilotua eta bere laguntzaile Nerea Beltran de Heredia, batetik, eta Aner Bueno pilotu azpeitiarra eta bere aholkulari lanak bete dituen Iosu Juaristi elgoibartarra, bestetik. Astebeteko tartean, helburua zen Hondarribitik El Port de la Selvarainoko (Girona) bidea parapentean egitea –eta aire-ratzeko baldintzak betetzen ez zirenean, oinez–; Pirinioak alderik alde gurutzatzea, alegia. Irten aurretikoan, Juaristik aldizkari honi aitortu zion minik hartu gabe ahal zen azkarren helmugaratzea zutela helburu behinena, baina na-



Iosu Juaristi, Enaitz Eizagirre, Aner Bueno, Maite Maiora eta Mikel Luengo.

barmendu zuen, lasterketa izanda, lehiatzera irtengo zirela, parapentiaz lasai gozatzeko, urtean egun asko dau-

dela azpimarratuta. Bada, joan den egunean lortu zuten helburua. 18:00 alderako iritsi ziren helmugara, eta, pentsatua

zuten bezala, Mediterraneoan bainua hartuta ospatu zuten.

Espereintzia izugarria izan dela aitortu dute parte-hartzaileek, gogorra, baina, aldi berean, polita, eguraldia ere lagun izan dutelako. Buenok eta Juaristik osatzen zuten taldea, baina biko horrek beste hiru lagun ere izan ditu abentura horretan. Mikel Luengo azpeitiarrak egin ditu gidari lanak abenturan zehar. Hark gidatu du autokarabana, eta otorduak gertatu dizkie. Enaitz Eizagirre parapentelari azkoitiarrak, bestalde, aireratzeko orduan behar zuen laguntza eman dio Buenori, bai eta behar zenean motxilatik pisua kendu ere. Maite Maiora mendi korrikalari mendaroarra eta Juaristiren bikotekidea izan da taldeko bosgarrena, zeinak mezulari lanak bete dituen, oinez bakarrik iritsi zitekeen lekuetan.

Lasterketa Christian Maurer eta Ramon Krebs suitzarrek irabazi zuten. Bigarren, berriz, Markus Anders eta Florian Schmid alemaniarrak sailkatu ziren, eta Lars Meerstetter eta Christof Graber bikote suitzarrak osatu zuten podiuma.

Hasiera ona izan du Gazte Asanbladako udako eskaintzak

A.A.

Gazte Asanbladakoek antolatutako udako programaren barruan, Iago magoaren magia ikuskizuna izan zuten Mendaron martitzenean, baina ekintzak hasi baino ez dira egin. Izan ere, domekarako, Olaia eta June bikoaren kontzertu akustikoa dute iragarria, eta astearterako, antzerki tailerra. Gaztetxeko aparkalekuan izango da kontzertua, 19:00etan, eta gaztetxean egingo dute antzerki tailerra, asteartean, hilak 7, 18:30ean. Arratsalde-iluntzeko eskaintzak gauera zabaltzeko, berriz, eguaztenterako, uztaillaren 8rako, gaubeila iragarri dute. Kanpin dendak eta zakauk hartu eta Santa Kurutzeko parkera igotzea da plana, gaua han pasatzeko lagun artean. 21:00etarako jarri dute elkartzeko ordua, gaztetxean, handik gora igotzeko. Batzen den jendearen arabera ipuin kontaketa saioak eta jolasak egingo dituztela zehaztu dute, bai eta, biharamuna lane-guna izaki, goizean goiz jasoko dutela kanpamentua ere, nor bere zereginetara itzul dadin.

Plaza dantza ikastaroa eta bertso-trama

Santa Ana jaiak ate joka daude, eta aurten erromerian inor ez dadin dantzarik egin gabe gelditu, plaza dantza ikastaroa antolatu dute uztaillaren 14rako. Mendaroko Gazteak dantza taldean dauden asanbladakideek emango dute eskola, eta bi ordu iraungo du. "Iaz, danborradako entseguetara joan behar izan zuen jendeak, eta motz egin zitzaigun tailerra. Horregatik, aurten 18:00etatik 20:00etara izango da". Gaztetxe aurreko aparkalekuan egingo dute tailerra, eta, iaz bezala, jende asko batzen bada, bi talde egingo dituzte.

Bestalde, uztaillaren 17rako, Bertsoan Gixez bertso-trama lotu dute, Herriko Enparantzan, 20:30erako. Lau bertsolari arituko dira bat-batean kantuan; honako hauek, gaia eta testuingurua jarrita: Libe Goenaga, Andoni Rekondo, Sugar Gesalaga eta Elixabet Etxandi.

Trafikoa moztu dute Zubiaurren herritarrek, saihebiderearen proiektua eta ibilgailu astunen murrizketak ez atzeratzea exijitzeko

100 herritarretik gora batu dira Saihebiderearen Aldeko Plataformaren protestara

Ander Gomez

Bariku eguerdirako, Zubiaurre kaleko errepede erdian elkarretaratzea egitera eta trafikoa hogeituz moztuta deitu zuen Saihebiderearen Aldeko Plataformak. 125 herritar batu ziren, *Nahikoa da: kamioi gehiagorik ez, saihebiderea orain lelopean, eta haiekin batera izan ziren oposizioako udal-taldeetako ordezkariak* –EH Bildu, Elkarrekin Ermua eta PP–. Ibilgailu astunen trafikoak gehien kaltetzen duen tartetako bat blokeatu zuten, eta, urteetako atzerapenen ondoren, ezusteko gehiagorik ez izatea eta epeak "behingoz" betetzea eskatu zuten.

Plataformako kideek azaldu zuten, gaur egun onartutako planaren arabera, saihebiderea ez da 2032. urtera arte martxan jarriko. Urriko tarteko lanak urte bukaeran hasia aurreikusuten da, eta hiru urte iraungo dute; ondoren hasiko dira Kaltxangotik Goitondorainoak, horiek ere hiru urteko epearekin. Hala izan ezean "ia egunero mobilizatzea behar-tuta" egongo direla ohartarazi zuten.

Saihebiderearen eraikuntzaz gain, trafiko astunaren inguruko kezka izan zen protestaren ardatzetako bat. Azken urteotan ezarritako murrizketak nabarmendu zituzten: "Lortu dugu Kaltxangotik Mallabiko herrigunera doan tartean kamioi



Herritarrak Zubiaurreko errepede erdian, trafikoa moztzen. ANDER GOMEZ

astunak debekatzea, egun osoz, eta Kaltxangotik Goitondora doan zatian, 22:00etatik 08:00etara; duela bi urte, Bizkaia eta Gipuzkoa etorbideetan debekatzea lortu genuen".

Udalak joan den astean martxan jarritako trafiko astuna birbideratzeko seinaleen instalazioa txalotu egin zuten, baina, aldi berean, neurri hori lehenago har zitekeela salatu zuten: "Hiru urte atzera proposatu genuen, eta udalbatzak duela bederatzita hilabete onartu, aho batez; baina Uretamendiko tunelak zabaldu zirenean ezar zitekeen, 2019an". Haien esanetan, herritarren presioak eta plataformaren lanak bultzatu dituzte erakundeak mugitzera. "Badirudi mobilizatzen ez bagara gauzak ez direla egiten; horregatik, hemen jarraituko dugu".

Trafiko astunaren murrizketen harira, Mallabiko Udalak eta Goitondoko zein Urriako industrialdeetako hamalau en-

presek aurkeztutako alegazioak izan zituzten hizpide. "Normala iruditzen zaigu enpresak egoerarekin gustura ez egotea; baina, gure ustez, saihebiderea lehenbailehen egiteko exijitu beharko lioke Foru Aldundiari, guk egiten dugun bezala", adierazi zuten.

Manifestazioa egin bitartean, kamioi ilarak sortu ziren bi noranzkoetan, Frankfurt tabernatik VI. Menduena kaleraino. Auto pilaketak saihesteko, trafikoa Ongaraitik desbideratu zuten Udaltzaingoak, baina horrek auzoa kolapsatu egin zuen. Plataformako ordezkariak garbi utzi nahi izan zuten bertako auzotarrei kalteak eragitea ez zela protestaren asmoa, eta euren atsekabea adierazi zuten sortutako eragozpenengatik.

Hogeituz minutuak igarota, bertaratutako askok protesta luzatzeko nahia adierazi zuten, baina plataformak hasiera batean adostutako denboran bukatzea adostu zuten, azkenean.

Ibilgailu astunen zirkulazioa mugatzeko seinaleak jarri dituzte

Informazio kanpaina abiarazi du Udalak; asteleheneretik aurrera, araua betetzen ez duten ibilgailuei isunak jarriko dizkiete

A.G.

Udalbatzak joan den irailean onartu zituen 3.500 kilotik gorako ibilgailuen zirkulazioa mugatzeko neurriak. Salbuespen bakarra zerbitzu publikoko ibilgailuak izango dira; gainontzekoak debekatuta izango dute herrigunetik igarotzea. Urtia industrialdera doazenei 24 orduko debekua ezarriko zaie; Goitondo industrialdera doazenei, berriz, egun zeharkatu ahal izango dute herrigunea, baina 22:00etatik 08:00etara debekatuta izango dute bertatik igarotzea. Neurriaren helburua trafiko astunak herrigunearan eragiten dituen eragozpenak murriztea eta herritarren bizikaltatea hobetzea dela azaldu du Udalak: "Bereziki, bizilagunen gaueko atsedena bermatzeko".

Neurriak administrazio-prozedura oso baten bidez, jendurereko informazio epea irekita eta jasotako alegazioak aztertuta onartu direla azpimarratu du Udalak. Halaber, Aldundiarekin koordinatu da herriguneko sarreteran eta kalte gehien jasaten duten bide nagusietan seinalizazioa ezartzeko. Joan den eguztenean hasi zituzten seinaleztaze-lanak, eta barikuan horien inguruko informazio kanpaina jarri zuten martxan.

Informazio eta egokitzapen aldia

Kanpaina hori Herritarren Segurtasun arloak abiatutako ekimena da, eta hamar egun iraungo duela jakinarazi du. Denbora tartea horretan ez da isunik jarriko, eta helburua "araua be-



Seinale berria Zearkaleko sarbidean. E.U.

rria ezagutaraztea eta gidarien egokitzea erraztea" dela azaldu du Udalak. Udaltzainen presentziak helburu informatiboa izango du, arauaren aplikazioari buruzko zalantzak argitzeko eta ibilbide alternatiboen berri emateko. Epea amaitutakoan, ohiko kontrol eta zaintza lanak egingo dituzte, eta araudia betetzen ez duten ibilgailuei salaketak jarriko dizkietela ohartarazi dute.

Udalaren ustetan, neurri hori beharrezkoa da Mendebaldeko Saihebiderea eraiki arte; "Behin bukatuta, trafiko astunaren arazoari eta herritarren kekei behin betiko irtenbidea emango zaie". Bitartean, eskerrak eman nahi izan dizkie garraioaren arloko profesionali, Urtia eta Goitondoko industrialdeetako enpresei eta herritarrei, "izaten ari diren lankidetzeta eta ulermenegatik". Era berean, erantzukizunez jokatzeko dei egin du, "neurriaren aplikazio ordenatua eta eraginkorra errazteko".

Balerio itxi dute, erabilera desagokia eta osasungarritasun-arazoak argudiatuta

A.G.

2007an, Balerioko terrazari estalkia eta kristalezko hormak jarri zituzten. Teresa Murga eraikinaren, Lobiano jauregiaren eta Pasialeku Jubilatuen Etxearen artean kokatuta egonik, kultur gune horien erabiltzaileentzat elkargune bat sortzea zen proiektuaren helburua,

eguraldiaren gorabeheretatik babestuta eta urte osoan erabilgarri egongo zena. Hasiera hartan espazioa gauez itxita egongo zela iragarri zuten Udalak.

Azkenaldian, ordea, gaua igarotzeko, koltxoak eta bestelako materiala biltegitratzeko, alkohola kontsumitzeko... eta erabilera desagokizat jo dituen beste-

lako ekintzetarako erabili dela azaldu du Udalak. Halaber, jarduera horiek osasungarritasun-arazoak eragin dituztela adierazi du. Horregatik, Balerio aldi baterako ixtea erabaki du, espazioari emango zaion erabilera berria zehaztu arte.

Espazioaren eraberritzea, adinekoen eskaera iazko prozesu parte-hartzailean

Balerio beste erabilera batzuk ematea Udalaren plangintzan zegoen jada. 2026ko aurrekontuaren

prozesu parte-hartzailean, 85.000 euroko partida laga zen 65 urtetik gorako herritarren esku. Herritarren proposamenak entzun ostean, adin-tarte horretako bizilagunei bi proiektuaren artean aukeratzeko eskatu zitzaizkien: udalerriko hainbat gunetan ping-pong mahaia erabilerari berriak zehaztea.

Guztira, hogeituz lagunek hartu zuten parte bozketan –hamasei emakume eta lau gizon–, eta Balerio eraberritzearen alde egin zuten.



Metalezko atekin itxi dute gunea. A.G.



Sallabenteko Erdi Aroko azokako kale-ikuskitzuna, 2024an. A. GOMEZ

Lehiek, dastaketek eta kale-animazioek jai giroan murgilduko dute Sallabente

Datorren eguaztenetik domekara bitartean ospatuko dira auzoko jaiak

Ander Gomez

Urtero bezala, pintxo lehiaketak irekiko du egitaraua, eguaztenean, 19:00etan. Pedres tabernak ez du parte hartuko aurten, baina Salmantino, Niza, Itxaso, Zugaitz eta auzora lekualdatu berri den Amatri lehia betean murgilduko dira. Hala ere, Jai Batzordeak lehiaketatik kanpo dauden gainontzeko tabernetako pintxo eskaintza ere probatzeko gonbita egin du.

Eguenean, umeentzako jolasak izango dira eskolako jolas-tokian, Inguru Abenturaren eskutik. 18:00etan hasiko dira, eta, bukatutakoan, auzotarrek prestatutako mokadutxo izango dute parte-hartzaile guztiek. Ondoren, tabernen arteko pintxo lehiaketaren bigarren eta azken jardunaldia hasiko da, 19:00etan.

Barikuan hasiko da azoka

Sallabenteko jaietako egitarautik bisitari gehien erakartzen dituen ekitaldia barikuan ailegatuko da: Erdi Aroko azoka. Asteburu osoa geratuko da, eta Gipuzkoa etorbidea ia osorik hartuko du. Postuetan artisautza-piezak, gozoak, sendabelarrak, xaboiak, arropa eta bestelako apaingarriak salduko dituzte. Gainera, aurtengo egitaraua

iragartzeko irudia San Lorenzo eskolako ikasleen artean egin dako kartel-lehiaketaren bidez aukeratu dute, eta, irabazleenez gain, parte-hartzaile guztien marrazkiak zintzilikatuko dituzte azokako postuetan.

17:00etatik 21:00etara, umeentzako puzgarriak izango dira eskolako jolastokian. Nagusiek, berriz, Os Galaicos taldearen gaita-poteoaz gozatzeko aukera izango dute tabernaz taberna. 19:30ean, buruhandiak aterako dira kalera, eta Movida Promovida diskoteka ibiltariak itxiko du eguna; auzotarrak dantzan jarriko ditu, 03:00rak arte.

Musika protagonista zapatuan

Zapatuan, 11:00etan, Erdi Aroko azoka berriro irekiko dute, eta 12:30ean, *80ko hamarkadako bermuta* egingo dute, otarrainka-dastaketarekin. 18:00etan, kalejira egingo du Irulitxak, eta, ondoren, sardina- eta saiheski-jana izango da. 23:00etan,

Erdi Aroko azoka izan ohi da auzora eta Ermura bisitari gehien erakartzen dituen ekitaldia

azoka itxiko dute, eta Phoenix Gira Fortuna orkestrak eskolako oholta hartuko du; 03:00rak arte dantzaldia egingo du. Tartean, atsedendian, *Bingo handia* egingo dute.

Ekintza-sorta handiena, domekan Erdi Aroko azokaren azken eguna izango da domeka. Saltaileek toldoak altxatu ostean, 11:30ean, batukada feminista egingo dute Andrajozak, Sorginkada eta Basfemband taldeek. Eguerdian, paella lehiaketa eta umeentzako igel txapelketa hasiko dira. 13:00etan, auzotar bat omenduko dute, eta umeentzako apar-festa hasiko da. 13:30ean, postre-lehiaketa eta nagusientzako igel txapelketa izango dira.

Arratsaldean, sardina- eta saiheski-jana errepikatuko dute, eta *Hirugarren adinekoen mokadua* egingo dute. 19:30ean, Ermuko Versionarios taldeak kontzertua emango du; 80ko, 90eko eta 2000ko hamarkadetakozko gaztelaniazko pop-rock kantu ezagunak joko ditu. Jaiak Erdi Aroko azokarekin batera amaituko dira, 22:00etan. Hauxe diote Jai Batzordeko kideek: "Azokak agur esango digu, baina hurrengo urtera arte bakarrik".

381 obra aurkeztu dira liburutegiaren Ermua Hiria literatur lehiaketara

A.Gomez

214 narrazio eta 181 poesia-lan jaso dira Udal Liburutegiak antolatutako lehiaketaren 32. aldian.

Euskarazko lanak baloratzeko epaimahaia Fernando Aranberri Euskara teknikariak, Ainhoa Onandia eta Amaia Rementeria Ermua BHIko irakasleek, eta Sara Gago liburutegiko langileak osatu dute. Narratibaren 14 lan aurkeztu dira, eta saria Jon Joseba Aizpuru zumaiarrak jaso du, *Elefante zuria* lanagatik. Poesian beste 14 lan aurkeztu dira, eta irabazlea Juan Ramon Alberdi azkoitiarra izan da, *Goieten hari-muturrak* lanarekin.

Gaztelazko narratibaren, Candido Pascual liburutegiko baz-

kideak, Slawomira Grabowska irakurketa klubaren dinamizatzaileak, eta Jose Miguel Fernandez liburutegiko langileak aukeratu dute irabazlea. Guztira 200 lan aurkeztu dira, eta saria Julian Despaigne valentziarrak eskuratu du, *Cambio de destino* lanarekin.

Poesiako epaimahaia Candido Pascualek, Maite Lorenzo aktore eta liburutegiko olerki taileraren dinamizatzaileak, eta Isabel Gonzalez liburutegiko langileak osatu dute. 167 lan aurkeztu dira, eta Patricia Aliaga katalana izan da irabazlea, *Sangre de papel* lanarekin.

Modalitate bakoitzeko irabazleak 500 euroko saria jasoko du.

Javi Alberdi Memorialak 3.600 euro bildu ditu minbiziaren kontrako borrokarako

A.G.

Maiatz bukaeran egin zuten Javi Alberdi Memorialaren hirugarren aldia. Hamabi orduz Urkora igo eta txartel solidarioak tontorreko postontzian lagatzera animatu ziren lagunei esker, 1.470 euro bildu ziren. *Zero ilaran* herritarrek eta kolaboratzaileek egindako ekarpenekin batera, iazko 3.196,63 euroko zifra gainditu eta 3.616,33 euroa ailegatzea lortu da aurten. Rio de Oro Durangaldeara bideratu zuten iazkoa; eta Bizkaiako Minbiziaren Aurkako Elkarteari eman diote aurtengoa.

Artarraikoez eskerrak eman dizkiete kopuru hori lortzen lagundu duten guztiei, eta, haien

esanetan, "Javi oso harro egongo litzateke herriak bere oroimena *itxaropen* bihurtzen jarraitzen duela ikusita".



Joan den astean eman zuten txekia. A.T.

Ermuarrak esklerosi anizkoitzaren alde 'bustiko' dira domekan

Ermua izango da Adembiren 29. *Busti zaitex* kanpainarekin bat egingo duen eskualdeko herri bakarra. Uztailaren 5ean, domeka, informazio-postua jarriko dute Patxi plazan, herritarrek esklerosi anizkoitzaren inguruan sensibilizatzeko. Bertan, Kukumusuren produktuak salduko dituzte, ikerketarako dirua bilduz laguntzeko.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

250 erretratura ailegatu da Ermuko eta Mallabiko 'Aspaldiko argazkiak' proiektua

Domekero, herri bakoitzeko argazki zahar bana kaleratzen da 'Barrena.eus'-en

Ander Gomez

2024ko urtarrilean hasi zuen ibilbidea Ermuko eta Mallabiko erretratu zaharrak partekatzen dituen *Aspaldiko argazkiak* proiektuak, *Drogeteniturrri.eus* webgunea martxan jartzearekin batera. 1955. urtean maletatxoa eskuan eta eskolara bidean zeuden Olga eta Iñaki Olañeta Martinez anai-arreba ermuarrena izan zen lehena; eta azken horren zapata txoak dira, hain zuzen, blogaren profileko argazki eta proiektuaren irudirik bereizgarriena.

Tartean mallabitar batzuk agertu ziren arren, otsailean ailegatu zen Mallabiko lehen argazki ofiziala. Berano Nagusi auzoko Urizar Etxebarri base-rikko sendiarena izan zen, 1944an Hanbren ateratakoa. Geroztik, herri bakoitzeko erretratu zahar bana egon da domekero, *Drogeteniturrri.eus*-en lehenengo, eta *Barrena.eus*-en orain.

Aste bukaeretakoa albistean arren, edukirik ikusiena izan dira sarritan. Mallabiko argazkiei dagokienez, aurtengo urtarrilean argitaratutako *Arre, astotxo!* izeneko 1980koa izan da ikusiena. Bertan agertzen dira Maria Areitioaurtena *Motxu* eta bere ilobak, Micaela Aranbururen astoaren gainean. Iruzkina bat duen bakarraketakoa da: "A ze garaiak...", idatzi zuen umetan agertzen den protagonistetako batek. Ermukoaren artean, berriz, bildumako 249. argazkia izan da ikusiena, joan den asteburukoa. *Piano-jolea entzuten plazan* du izena, eta 1949ko Orbe Kardinala plaza agertzen da, jendez beteta, frontoi aldean zegoen piano emanaldia ikusmin handiarekin entzuten. Ikusleen artean zeuden hogeita lau lagun daude identifikatuta.

Argitaratu berri den Mallabikoarekin, 250 erretratuko bilduma osatu da, eta, ekimenaren atzean daudenek zehaztu dutenez, ez da lan erraza izan. Izan ere, zaila da ganbaretan eta kutxa zaharretan ezkatututa dauden "harribitxi" horiek argitara ekartzea; baina, are gehiago, klik egin zen une haren data asmatzea, edota bertan agertzen diren aurpegiei izen-abizenak jartzea.



Mallabiko azken argazkia, *Pagalday Arruabarrena sendia* (1958). A.A.



Ermuko azken argazkia, *Piano-jolea entzuten plazan* (1949). A.A.

Laguntzeko eskaera herritarrei Zifra borobil hori "ate asko jota" eta "herritarren eskuza-baltasunari esker" lortu dela diote, eta "aitzakia polita" iruditu zaiela laguntza eskatzeko.

Azaldu dutenez, baldintza bakarrak dira 25 urtetik gorako antzinatasuna izatea, ermuarrek edo mallabitarrek agertzea –eta gehien izen-abizenak jakitea–, eta gutxi gorabeherako data bat. "Gainontzean, zuri-beltzeko zein kolore sasoikoak izan daitezke; herrian bertan, atzerrian bi-

zitzen edo munduan zehar bidaiatzen ateratakoak; ospakizunetakoak –ezkontzetakoak, haien aurretiko despedidakoak, familia edo kuadrillekin ateratakoak, jaietakoak...– edo antzinako egunerokotasuna erakusten dutenak". Ezaugarri horiekin bat datorren argazkirik izanez gero, 676 26 41 88 (Estibalitz) zenbakira edo posta elektronikora –*ermua@barrena.eus* edo *mallabia@barrena.eus*– bidaltzera animatu dituzte herritarrek.

Azken finean, blogaren sortzaileek gogorarazi dutenez, proiektua aparteko interesik gabekoa lana da, eta haren helburua "aspaldiko eta, sarritan, jada gure artean ez dauden txoko, ohitura eta pertsonak ermuarren eta mallabitarren memoria kolektiboan bizirik mantentzea da".

"Helburua da txoko, ohitura eta pertsonak herritarren memoria kolektiboan bizirik mantentzea"

Klubeko belaunaldi guztiak batuz ospatuko ditu 75 urteak Ermua CDk

Dokumentalaren proiektua, omenaldiak, herri-bazkaria, umeen txapelketa eta DJ festa egongo dira gaur eta bihar artean

A.G.

Urtarrilean hasi zuen 75. urterreneko egitaraua, beteranoren arteko txapelketarekin eta eraserkiaren eta kamiseta retroen aurkezpenarekin. Tartean, Monroe Txapelketa eta denboraldiko azken partida izan dira, eta jarduera ugari antolatu dituzte. Ospakizun nagusia, ordea, aste-buru honetakoa izango da.

Bihar, zapatua, ekitaldi berezia egingo dute Ermua Antzokian, 11:00etan. Klubaren historia laburbiltzen duen eta presidente, entrenatzaile eta jokari ohien testigantzak jasotzen dituen dokumentala proiektatuko dute. Eguno presidentek –Aitor Alvarez– zuzendu du, Ion Alcobarrekin batera. Ekaitz Manteconek egin ditu elkarrizketak, eta grabaketan Gexan Mendizabal, Alberto Diaz eta Asier Garcia aritu dira. Hilabeteak eman dituzte pieza ekoizten, eta, Alvarezk esplikatu duenez, "dirua ere kostatu da, baina gauza onak ordaindu egin behar dira, bai diruz, bai denboraz".

Proiektioaren aurretik bertso batzuk kantatuko dituzte, eta, ostean, omenaldia egingo diete klubaren parte izan diren 75 urtetik gorako 55 kideri. Klubak herritar guztiak gonbidatu ditu ekitaldira, baina gogorarazi du antzokiak 515 lagunentzako edukiera duela eta gerora ere dokumentala sareetan eta webgunean jarriko dutela ikusgai.

Antzokitik ateratakoan, Irulitza txaranga izango dute zain, eta bazkalordura arteko orduak girotuko ditu, kalejiran. 15:00etan, herri-bazkaria egingo dute, eta berrehun lagun elkartzeko dira plazako frontoian egongo den karpan. Alvarezk azaldu duenez, elkarrizketak kontatzeko momentu hunkigarria izango da: "Ermua CD eraikitzen lagundu duten kide asko elkartzeko dira bazkari horretan, horietako asko adinekoak eta urteak eta urteak elkar ikusi gabe eman dutenak". 18:00etan, Dantzatzeko Prest kolektiboko Paco Sanchez DJa jarriko da nahaste-mahaiaren atzean, festa berandura arte luzatzeko prest.



Celestino Urquijo presidente eta jokari ohia, 75. urteurrenaren dokumentaleko elkarrizketa egiten. ERMUA CD

Eskola Eguna ospatuko da gaur

Egun nagusia zapatukoa izan arren, ospakizuna bezperan hasiko da; eta, atzera begirakoa baino gehiago, etorkizunera begirakoa izango da. Gaur arratsaldean, egitarau berezia izango dute Ermua CDren futbol eskolako neska-mutilek. 17:30etik 19:30era, aurrebenjamin eta alebin kategorien arteko jokalarien areto futbol txapelketa egingo dute San Pelayo parkean. Bi orduko lehia bukatzen denean, bi orduko DJ festa hasiko dute, Dantzatzeko Presten eskutik. Tartean, 20:30ean, txosna zabalduko dute, eta txapelketan parte hartu duten jokalariei ogitartekoak banatuko dizkiete.

Antolatzaileek "urduri eta, aldi berean, irrikaz" espero dute ospakizuna: "Lan handia izan da, ekintza asko daude, baina dena ondo ateratzea eta, batez ere, herritarrek disfrutatzea espero dugu".

"Urte luzez elkar ikusi gabe eman duten lagun asko elkartzeko ditu biharko ospakizunak"



Apirilean, Artarraik antolatutako Mallabiko ibilbide zirkularrean erabaki zuten taldea sortzea. A.M.T.

Mendi-irteeren eskaintza falta betetzeko sortu da Mallabiko Mendizaleak taldea

Futbol taldearen eta frontoiaren arteko elkarlanetik jaio da, eta familientzako zein mendizale esperientziadunentzako ibilbideak antolatuko dituzte hileroko

Ander Gomez

Datorren urtean, hogeita hamabost urte beteko dira Arietzu Mendi Taldea sortu zenetik. Gaur egun, desagertuta dago, eta azken urteetan ez da mendi-irteera ofizialik egin Mallabian, kuadrillek euren artean antolatutakoak izan ezik. Frontoiaren kudeaketaz arduratzen diren Pili Silva eta Koldo Zabala dira, besteak beste, lagun artean euren kabuz irteerak egin izan dituztenetako bi. Zabalen berbetan, aspalditik igartzen zuten eskaintza falta herrian: "Duela hiru urte hartu genuen frontoiaren ardura, eta spinning, zumba, indar-entrenamendua... egiten diren neurrian, mendi-irteerak ere antolatu zitezkeela pentsatu genuen". Ideia, ordea, hor geratu zen, aurten arte.

Apirilean, Artarraik Mendi Taldeak ibilbide zirkularra egin zuen Mallabian. Berrogei lagun batu ziren, horietatik bederatzi mallabitar, eta euren arteko berbetaldia izan zen proiektuaren hazia. Gero, Mallabia FTKo Laura Fernandes presidentea eta Carlos Perez koordinatzailea batu ziren, eta, Mallabiko Frontoiarekin batera, ideia aurrera eraman eta taldea sortu zuten: Mallabiko Mendizaleak.

Zehaztu dutenez, ez da mendi talde bat izango bere horretan, "ez da kuotarik ordainduko edo bazkide egin beharko; mendi-irteera irekiak izango dira, doakoak, eta edozein pertsonak eman ahal izango du izena, Whatsapp bidez".

Ibilbideei dagokienez, hitzordu bakoitzean bi desberdin diseinatuko dira: bata orokorra eta bestea laburragoa, familiek umeekin egiteko pentsatutakoa.

Lehen, kostan; gainontzekoak, Mallabi inguruan

Lehen irteera uztailaren 19an -domeka- egingo da. Deba eta Zumaia arteko ibilbidea egingo dute, bertako flyscha ikusteko. 16,5 kilometroko distantzia izango du, eta bost ordu eta erdian egitea aurreikusi dute. Debara joateko, trena hartuko dute Zaldibatik. Irteera ordua atzeratu da eta 07:45ean elkartuko dira tren-geltokian; 07:30ean, Malla-

biko petrilean. Dagoeneko sei lagunek eman dute izena, eta, hasierako hau "apur bat gogorra eta opor garaian antolatutakoa" izan arren, jende gehiago animatzea espero dute.

Momentuz, beste bederatzi irteera lantzen ari dira; guztiak Mallabian, eta zirkularrak. "Bertako ibilbideak egin nahi ditugu lehenengo; ondoren, taldeak babesa izanez gero, hasiko gara beste txoko batzuk esploratzen".



Mallabiko Mendizaleak Whatsapp taldera batzeko, eskaneatu QR kode hau.



Laura Fernandes
FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

"Kirol eta kultur eskaintza zabala dugu futbol taldean, baina gehiena umeei zuzenduta dago; nagusien frontenis txapelketak dira salbuespena. Guztiek batera egiteko jardueren bila genbiltzan, eta, herrian dagoen mendiko ekintzen eskaintza falta ikusita, Mallabiko Mendizaleak sortzea animatu ginen".



Koldo Zabala
FRONTOIKO ARDURADUNA

"Frontoian ere jarduera pila daude, baina herritar askok, hona etorri eta gimnasioan sartu baino, zapatilak jantzi eta naturan murgiltzea dute nahiago; nik barne. Mendizaletasun handia dago Mallabian; eskaintza falta zen. Orain, espero dugu jendea pixkanaka animatzea eta talde polita osatzea".



Txapelketan parte hartu zuten bederatzi gazteak. MFT

Madariagak iazko finalaren ordaina hartu du Frontenis Promises lehiari

A.G.

Hilaren 25ean, bederatzi gazte frontenis lehia bizian murgildu ziren, Mallabia FTK antolatutako Promises txapelketan. Hiru taldetan banatuta, hamabost minutuko partidak jokatu zituzten, hamasei tantora.

Finalerdietara ailegatu ziren Garai Mugarza, Oier Benzanilla, Jon Madariaga eta Unax Pradera. Lehenengo partidari, Mugarzak 16-8 hartu zuen mendean Benzanilla; bigarrenengan, berriz, Madariagak 16-13 irabazi zion Praderari.

Horrenbestez, 2025eko finaleko bikote bera izan zen aurrez aurre. Iaz, Garai Mugarzak eskuratu zuen txapela, 18-16ko lehia estuaren ostean. Aurten, Madariagak nagusitasunez ira-

bazi zuen finala, 16-3ko emaitzarekin.

Antolatzaileek parte-hartzaile guztiak zoriondu dituzte, "erakutsitako maila eta kiroltasunagatik", eta eskerrak eman dizkiete txapelketa bertatik bertara jarraitu zuten guztiei.



Carlos Perez eta Jon Madariaga. MFT

Bi gizon atxilotu dituzte, argiteria publikoko kablea lapurtzea egotzita

A.G.

Ertzainek 52 eta 45 urteko bi gizon atxilotu zituzten joan den asteko eguaztenean, 07:10 aldera, Mallabarrenako argiteria publikoko kutxatiletatik kablea lapurtzen ari zirela harrapatuta. Erremintak eta labana bat konfiskatu zizkieten, eta bazterretan 350 metro kable topatu zuten. Horrez gain, inguruan egindako miaketan, beste hamalau kutxatila indarrez zabalduta eta kable barik zeudela ikusi zuten. Bi atxilotuak Eibarko ertzain-etxera eraman zituzten, eta ondoren epailearen esku laga.



Lapurtutako kable zatia. ERTZAINTEA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Atzo, eguena, bukatu ziren aurtengo Gazte Udalekuak. Partaidetza handia izan dute, orain arteko handiena, 60 gaztetik gora ibili baitira. Jolas, irteera eta ekintza, hiru egin bete izan dituzte, Kukumixo Aisialdi Elkartearen begiraleen eskutik.

San Andres auzoko aterpetxean pasatu dituzte gauak, eta egunez, mendi inguruan ibiltzeaz gain, Mutrikuko hondartzan eta Elorrioko igerilekuetan izan dira.



Gazte Udalekuetan ibili den gazte eta hezitzaile taldea, Karakaten, eguazten ilunabarrean. MIREN MIGURUZA

Udaleku irekiak bi astez

Astelehenean hasita, berriz, etxeko txikien txanda izango da, orduantxe hasiko baitira Soralezko udaleku irekiak.

Uztailaren 17ra bitartean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko 155 ume ibiliko dira udaleku irekietan -3 eta 12 urte artekoak-, batzuk astebetetz, eta gehienak udalekuek iraungo duten bi asteetan.

Hezitzaile, zaintzaile eta jolasarako lagun izango dituzte Kukumixo Aisialdi Elkartearen 26 begirale, hezitzaileak eta praktikatzaileak barne; guztiak, ere soralezetar gazteak.

Gazte Udalekuak bukatuta, astelehenean hasiko dira udaleku irekiak, 155 umerekin

Uztailaren 17ra arte, 3 eta 12 urte arteko umeak ibiliko dira udaleku irekietan

Marras, irteerak...

Astelehenean 10:00etan elkartuko dira guztiak, eta Marrasen etorrerarekin estreinatuko dituzte udalekuak.

Hortik aurrera, taldeka banatu eta herria izango dute jolas-

gune nagusi egunero, 13:00ak arte. Baina herritik kanpo ere ibiliko dira; txikiak, HH eta LH2 artekoak, Aulestiko bainutokira eta Elgoibarko Mintxetako aire libreko igerilekuetara joango dira. Kasu horietan, ir-

teerak egun osorakoak izango dira.

LH3 eta LH6 arteko nagusiak, berriz, Mutrikuko hondartzara eta Elorrioko igerilekuetara joango dira; haiek ere, noski, egun osorako.

Kanpoan lo eta Kale Kolore

Ez zaie faltako, ezta ere, Kukumixoko begiraleen eskuzabaltsunari esker, gau bat etxetik kanpo elkarrekin pasatzeko aukera. Txikiak eskolan egingo dute lo; nagusiagoek, berriz, Urkia Zelai izango dute lo-leku. Iaz estreinatuko aldiz izan zuten Urkia Zelai lo-leku, gustukoa izan zuten, eta aurten errepikatu egingo dute.

Udaleku irekiak borobiltzeko, eta beste urte batez behar den moduan agurtzeko, azkeneko eguna, uztailaren 17a, *Kale Kolore* eguna izango da, egun bete eta intentsoa umeendako zein begiraleendako, egun osoko jaia egingo baitute.

Goizean, autobus magikoarekin, musika topera dutela ibiliko dira umeak handik hona, herrian prestatutako txokoetan, kozinatzen, aurpegiak margotzen, ile-orrakzerak egiten, marrazkiak egiten, jolasak... Gero, elkarrekin bazkalduko dute etxetik eramandakoa, eta amaiera borobila emateko, *Ur Zikinen Jolasak* egingo dituzte lehenengo eta azkenik, gehien maite dutena, udaletxe ondoko ur-txirristan ibiliko dira.

Paella lehiaketa uztailean eta hiru eguneko irteera Leonera irailan

U.M.Z. SORALUZE

Txerri-masail lehiaketa egin zuten Itzaropena Erretiratuen Elkartearen joan den barikuan. Bost bikotek parte hartu zuten eta Iñaki Iñarra eta Abel Olaiola izendatu zituen txapeldun eibartarrez eta elgoibartarrez osatutako epaimahaia. Segidan, egindako masailak pintxoetan banatu zituzten elkartearen taber-

nan, euro baten truke, edaria barne.

Paella lehiaketa eta irteera Leonera

Bada, dagoeneko beste bi jardura iragarri ditu Itzaropena Erretiratuen Elkarteak. Batetik, uztailaren 16an, eguena, paella lehiaketa eta bazkaria egingo dituzte. Lehiaketarako izen-ematea zabalik dago, uztailaren 14ra

arte. Paella bazkariari dagokionez, 14:00etan hasiko da. 2 euro da otorduaren prezioa.

Bestetik, iragarri dute irailaren 20tik 22ra Leonera irteera egingo dutela. Besteak beste, itsasontzian ibiliko dira Riaño urtegiaren, eta Leon eta Astorga hiriak bisitatuko dituzte. Irteeraren prezioa 350 eurokoa da pertsonako. Horretarako ere zabalik dago izen-ematea.

Bi kasuetarako, martitzenetan eta eguenetan eman behar da izena, 11:00etatik 12:00etara bitartean.



Txerri-masail lehiaketako partaideak eta epaimahaia. U.M.Z.

Elektrizitatea Iturgintza Igeltseritza Pintura
EXGA S.L. 679 623 584 Soraluze

IZAGUIRRE Igeltseritza
 Erakitin berriak - Kalitatezko emaitza Erreforma - Era guztietako Igeltseritza
 50 urteko esperientzia - 610 638 913

SORALUZE MOTOR
 Mendiola ind. 13 Soraluze
 476 556 817 - 943 75 21 38

ODRI Mota guztietako leihen, pertsiarak, ateak, barandak salmenta eta konponketa
ATEAK ETA LEIHOAK
 ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
 T. 662 234 609
 Egoz Erenka Kalea 2 - 30940 SORALUZE
 e-mail: odrileihoak@gmail.com

aras zehaztasun handiko piezak
 Mendiola Industrialdea 19
 Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
 Fax 943 75 22 95
 aras@tomilleriararas.com
 www.tomilleriararas.com

ALBISUA
TAILER MEKANIKOA
 Mekanizatutako piezak Erremintak
 Mendiola Industrialdea 14-4 - 161 PK.
 Tel. 943 75 21 42 - Fax 943 75 24 12
 E-mail: albisuat@albisua.net

Armendi Jatetxea
 Sukalde tradizionala
 Egunko menua
 Asteburuetan menu berezia
 Karta
 Burduntzian erretako bildotsa
 Etxeko triloak
 Soufla
 Tel. 943 75 10 02

ELIZPE HORTZ KLINIKA
 Tel. 943 75 25 67

"Gero eta interes handiagoa dago loaren inguruan, baina mito eta uste oker asko daude"

ELENA URRESTARAZU NAFARROAKO UNIBERTSITATE KLINIKAKO LOAREN UNITATEA

Nafarroako Unibertsitatea Ospitaleko Loaren Unitatean egiten dute lan Elena Urrestarazu eta Beatriz Echeveste medikuek; 'Vamos a dormir; mitos y verdades' liburua argitaratu dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Elena Urrestarazu Bolunburu (Soraluze, 1972) eta Beatriz Echeveste Gonzalez (Hondarribia, 1988) neurologo eta neurofisiologoek loarekin lotutako liburua argitaratu zuten martxoan: *Vamos a dormir; mitos y verdades*. **Zelako harrera izaten ari da liburua?** Oso harrera ona. Irakurle askok esan digute liburua argia, praktikoa eta irakurterraza dela, eta hori zen helburua. Duela pare bat urte hasi ginen lantzen, kontsultan pazienteei behin eta berriz egiten zizkiguten galderetatik abiatuta. Beatrizek eta biok Nafarroako Unibertsitatea Ospitaleko Loaren Unitatean egiten dugu lan, eta urte asko daramatzagu elkarrekin pazienteei artatzen eta ikertzen. Esperientzia horren ondorio naturala izan da liburua.

Zein da irakurleen profila?

Edonori zuzendutako liburua da. Ez da medikuentzat bakarrik; loari buruz gehiago jakin nahi duen edozein pertsonarentzat da. Lo egiteko arazoak dituztenentzat bereziki erabilgarria izan daiteke, baina baita ondo lo egiten dutenentzat ere, loaren funtzionamendua hobeto ulertu eta ohitura osasungarriak sendo ditzaten.

Horri buruz idatzi beharra ikusi duzue?

Bai. Azken urteotan gero eta gehiago hitz egiten da loari buruz, eta informazio ugari dago eskura, batez ere sare sozialetan eta Interneten, baina ez dago beti ebidentzia zientifikoan oinarrituta. Gure helburua infor-

mazio fidagarria eta ulerterra eskaintzea izan da, jendeak mitoen eta errealtatearen arteko aldea bereizten jakin dezan. **Oraindik ezjakintasun handia dago?** Bai. Gero eta interes handiagoa dago loaren inguruan, baina mito eta uste oker asko daude. Gainera, informazio ugari dago eskura, baina ez da beti ebidentzia zientifikoan oinarritzen.

Zein da mitorik handiena?

Mitorik handienetako bat lo perfektua existitzen dela sinestea da. Lo normala ez da perfektua; aldakorra da. Guztiok izaten ditugu gau hobeak eta okerragoak, eta gau berean ere esnatze laburrak guztiz normalak dira. Lo egitea helburu bihurtzen dugunean eta etengabe kontrolatzen saiatzen garenean, antsietatea handitu egin daiteke, eta horrek, paradokikoki, insomnia agertzea edo mantentzea erraztu dezake.

Eta egirik handiena?

Loa osasunaren oinarritzko zutabeetako bat da. Elikadura osasungarria eta ariketa fisikoa bezain garrantzitsua da. Lo egiten dugunean, garunak eta gorputzak ezinbesteko funtzioak betetzen dituzte.

"Gaur egungo mitorik handienetako bat lo perfektua existitzen dela sinestea da"

Sineskeria ala ohitura txar asko daude loarekin lotuta?

Biak. Ohitura desegokiak badiugu, baina baita froga zientifikorik gabeko sinesmen eta aholku ugari ere. Horregatik, garrantzitsua da informazio fidagarria izatea eta irakurtzen edo entzuten dugun guztia ikuspegi kritikorekin baloratzea.

Zer zuzendu beharko genuke loaren osasuna zaintzeko?

Ez dago pertsona guztientzat balio duen aholku edo trikimailu bakar bat. Baina lagungarria da ordutegi nahiko erregularrak izatea, egunez argi naturala jasotzea, ariketa fisikoa egitea eta gauz pantailen erabilera mugatzea. Eta beste ideia bat azpimarratuko nuke: ez dugu loarekin obsesionatu behar. Zenbat eta gehiago saiatu loa kontrolatzen, orduan eta zailagoa izan daiteke lo egitea.

Zenbateraino eragiten du loak gure osasunean?

Eragin handia du. Loak bihotz-hodietako osasunean, metabolismoan, sistema immunologikoan, garunaren funtzionamenduan eta osasun mentalean eragiten du. Horregatik esaten dugu loa ez dela luxu bat, osasunaren oinarritzko beharra baizik.

Badago berritasunen bat loari buruzko ikerketetan?

Aurrerapen handiak egin dira. Gero eta hobeto ulertzen dugu loak garunaren osasunean duen zeregina, baita loaren nahasmenduek beste gaixotasun askorekin duten harremana ere.



Elena Urrestarazu eta Beatriz Echeveste, liburu aurkezpenean, Zizurren. E. URRESTARAZU

Diagnostiko- eta tratamendu-aholkerak hobetzen ari dira.

Ugaritu egin dira kontsultak?

Bai, nabarmen ugari dira. Gaur egun, jendeak badaki lo egitea osasunerako garrantzitsua dela, eta lehen baino gehiago eskatzen du laguntza. Hori albiste ona da, loaren nahasmendu askok tratamendua baitute. Hala ere, oraindik badaude sintomak normalizatzen dituzten pertsonak edo laguntza eskatu gabe urteak ematen dituztenak.

Aldatu egin dira loarekin lotutako arazoak?

Insomnia eta loaren apnea dira kontsultan gehien ikusten ditugun nahasmenduak. Horiekin batera, hanka geldiezinen sindromea ere oso ohikoa da, baina, askotan, ez da ezagutzen, eta paziente askok urteak ematen dituzte diagnostikorik gabe. Gainera, gero eta gehiago ikusten

"Elikadura osasungarria eta ariketa fisikoa bezain garrantzitsua da loa"

ditugu erritmo zirkadianoaren alterazioak eta loarekin lotutako beste nahasmendu batzuk ere.

Bukatu dituzue liburu-aurkezpenak? Aurkezpen batzuk egin ditugu, eta irratian eta telebistan ere izan gara liburua aurkezten eta loaren inguruko dibulgazioa egiten. Pozik joango ginatke beste toki batzuetara ere, gonbidatzen bagaituzte. Liburua liburu-dendetan eta Internet bidez eros daiteke.

Zuen lehen liburua da?

Dibulgazio-liburu gisa, bai, lehenengoa da. Oraingoz, nahia da liburua ahalik eta jende gehienarengana iristea. Ikusiko dugu etorkizunean beste proiekturen bati ekingo diogun.

Besterik nahiko bazenu esan...

Liburuarekin mezu simple bat helarazi nahi dugu: loa zaintzea osasuna zaintzea da. Baina zaintzea ez da perfektzioa bilatzea. Lo normala aldakorra da, eta gau txar batek ez du esan nahi nahitaez loaren nahasmendu bat dugunik. Loaren inguruko informazio fidagarria izateak eta, behar denean, profesionalengana jotzeak lagundu dezake hobeto lo egiten, baina baita loaren inguruko kezka murrizten eta lasaigoa bizitzen ere.

MENDIZABAL
okindegia
Ogita - Prentsa - Gosariak

Astelehena: 08:00 - 13:00
17:00 - 19:30
Ostirala: 08:00 - 13:00
Larunbata: 08:30 - 13:30

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



IXOTU *goi*

BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

BERGARA · 943 044 728





Txapelketaren 25. urteurrenako talde-argazkia. EGOITZ UNAMUNO



Ekitaldiaren une bat. E.U.



Rasconek eta Gallastegik Ariznabarretaren eta Unanueren aurka jokatuko dute finala.

Pilota txapelketaren urteurrenak ehunetik gora herritar batu ditu

Aurtengo finala uztailaren 11n jokatuko dute, San Andresko frontoian

Egoitz Unamuno SORALUZE

Joan den zapatuan, ekitaldi jendetsua eta hunkigarria egin zuten frontoian, txapelketaren mende laurdeneko ibilbidea ospatzeko. Ekitaldian, oraingo eta lehengo parte hartzaileak, antolatzaileak eta Asierren eta Iñakiren senide eta lagunak batu ziren; guztira, ehun herritar baino gehiago.

Bizimina elkartekoei prestatutako paella jan ostean, oholtzara igo, eta bertan txapelketaren ibilbidea errepasatu zuten. Atzera begirakoan, lehiaketaren

izenaren eta izanaren historia gogorarazi zuten, eta, horrez gain, urteotan pilotarekiko zaletasuna eta belaunaldien arteko harremanak indartzeko izan duen pisua azpimarratu zuten. Aitortu zuten, boladaka, txapelketak gorabehera handiak izan ditu parte hartzaile kopuruetan: "Izan dira 24 parte hartzaileko edizioak, eta 70 parte hartzaile baino gehiagokoak ere bai". Oro har, antolatzaileen ustez, ekimenak lortu du urtez urte belaunaldi askotariko pilotazaleak batzea. Aurtengo

edizioa da horren erakusgarri; izan ere, apirilaz geroztik, hogeita zazpi bikotek dihardute parte hartzen txapelketan; gazteenak 16 urte ditu eta zaharrek, berriz, 78.

Ekitaldian, oholtzara igoarazi zituzten txapelketaren ibilbidean "pisu berezia" izan duten hainbat pertsona: Mikel Ostolaza, Unai Larreategi, Mikel Argarate, Ander Oñate, Jon Mendizabal *Azalia*, Iratxe Benito, Mari Fran Aizpuru eta Koldo Heriz. Bakoi-tzari oroigarri bana entregatu zioten, egindako lana aitortzeko,

eta, tartean, momentu hunkigarriak ere bizi izan ziren, txalo eta negar artean.

Beteranoak finalean

Aurreko egunean, barikuan, jokatu zituzten aurtengo edizioko finalaurreko bi partidua, eta haietan bi bikote beteranoek eskuratu zituzten finalerako txartelak: Joseba Gallastegik eta Jurgi Rasconek eta Iosu Unanuek eta Argoitz Ariznabarretak. Hirugarren eta laugarren postuetarako partiduan, berriz, Iokin Arrillaga eta Rober Gomez –bergararra– lehiatuko dira Hodei Tajueloren eta Jokin Aranbururen –ermuarra– kontra. Finala uztailaren 11n jokatuko dute, San Andresko jaien lehen egunean, 17:30ean. Egun horretan, San Andresko frontoia pilotazaleen topagune bihurtuko da, beste behin.

Araneko helduen kirol ikastaro batzuk beteta daude ikasturte berrirako

Ikastaro batzuk beteta dauden arren, izen-emateak zabalik segitzen du, itxarote-zerrenda egoten baita halako kasuetarako

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

2026-2027ko ikasturtean, Arane kiroldegian eskaintzen dituzten helduen ikastaroen ia erdiak beteta izango dira. Hala diote orain arteko matrikulazio-datuek.

Kiroldegiko ordezkariek emandako xehetasunen arabera, honako ikastaro hauetan beteta daude arratsaldeetako txandak: pilatesa, spinninga, cross-traininga, hipopresiboa, igeriketa eta fit-boxinga.

Goizez, berriz, lekua dago pilatesean; eta, lekua dago goizean edo arratsaldean multifitness, gap bosun, zumba, aguagym eta +65 gimnasia jardueretan.

Izen-ematea zabalik

Edozelan ere, ikastaro guztietan zabalik dago izena emateko epea: batetik, lekurik ez duten ikastaroen kasuetan, itxarote-zerrendak osatzen direlako; eta bestetik, matrikulazioetan gorabehera asko egoten direlako.

Helduen ikastaro guztiak irailaren 14an hasiko dira. Eta orain arte moduan, irailetik aurrera ere tarifa finkoa izango da; hartara, ikastaro batean izena emanda duenak aukera du besteetara ere joateko.

Umeak eta gazteak

Bestalde, umeei eta gazteei zuzendutako ikastaroei dagokienez, igeriketa ikastaroetarako umeak izena ematen hasi badira ere, irailen ere izango da aukera; hain justu, irailen osatuko dituzte igeriketako taldeak, eta ikastaroak urrian hasiko dira.

Gaztefit ikastaroari dagokionez, berriz, hor ere badago lekua, eta irailen ere izango da izena emateko aukera. 12 eta 16 urte arteko gazteentzako da.

Edozein ikastarotan izena emateko, kiroldegiko leihatilara jo beharra dago.

"Gustatzen zait igartzea kartela nongoa den, festa giroa erakustea eta ideia transmititzea"

EGUZKIÑE ALDAZABAL ORTUETA JAIETAKO KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Eguzkiñe Aldazabal Ortuetak (Soraluze, 1983) egindako kartelak ilustratuko du herriko aurtengo jaietako egitaraua, hura izan baita kartel lehiaketako irabazlea. Hirugarren aldiz jarraian irabazi du Soraluzeko kartel lehiaketa.

Pozik zaude? Ja hirugarren aldiz jarraian, gainera...

Lotsa pixka bat ematen dit, hirugarren aldiz jarraian... baina pozik, bai.

Lehenago ere irabazi izan duzu.

Aspaldi, 2009an, herria koloretan ipini nuen.

Ez da erraza izango urtetik urtera marrazki desberdin bat aurkeztea...

Beti edukitzen dut buruan zerbait, ideien bat. Erreferentziak bilatzen hasten naiz, koloreak... Adibidez, aurtengo mandalarekin lotutako zerbait egin nahi nuen, eta kolore asko sartu. Gero, exekutatu, azken asteetan exekutatzen dut.

Baduzu, ba, abilezia, horren denbora gutxian exekutatzeko.

Bada, teknika falta zait oraindik, ze, adibidez, ez daukat tabletarik marrazteko. Lehenengo, eskuz marrazten dut; gero, eskaneatu, ordenagailura pasatzeko; orde-

nagailuan, Photoshopen lineak guztiak erreparatu; gero, zerbait aldatu nahi badut, berriro ere marraztu eskuz, eskaneatu, ordenagailuan erreparatu...

Zergatik egiten duzu hori guztia?

Digitalean ere eskatzen dute kartela, eta marrazki bati argazki bat ateraz gero edo eskaneatuz gero, kalitate handia galtzen du. Hortaz, eskuz marraztutakoa ordenagailura pasatzen dut, eta hori ahal dudan moduan egiten dut; denbora asko galtzen dut prozesu horretan, lan handia da eta. Marrazkia bera ez da hain koloretsu gelditzen. Marraztea asko gustatzen zait, eta hori modu errazean zelan egin ikasi nahian nabil, baina digitalean.

Hortaz, zuk biak uztartzen dituzu, ordenagailua eta eskuzko lana.

Bai; ordenagailuz oraindik ez dut lortzen eskuz marraztean daukadan trazua.

Aurtengo marrazkian zein elementu sartu dituzu?

Barraskiloaren jira-biran herriko zubiei inportantzia eman nahi izan diet; berez, bi zubi marraztu ditut, baina beste marrazkietatik ere zubiak irudikatzen dituzte. Mosaikoan sartu-

tako irudiak Soraluzeko argazkietatik ateratako siluetak dira; adibidez, danborradakoak eta txarangakoak...

Oso koloretsuak dira zure kartelak: orain bi urtekoa, urdina; iazkoa, gorria; aurtengoa, hori-horia...

Bai; askotariko koloreak sartu nahi nituen. Jaiak dira, gauza alaia da, eta uste dut transmititu egin behar dela zertarako den kartela. Bestalde, garai batean, brusak egoten ziren jaietan, eta forma geometriko horren jolasa ere hor dago, mandala itxura... Aurtengo, *vintage*-ra joan naiz, nolabait, lehenagoko brusetara, koloreetara...

Marrasere sartu duzu azken bietan...
Argi dagoen gauza bakarretako bat *Marras* dela iruditzen zait.

Ez zara marrazkilaria, baina bai marrazkizalea.

"Soraluzeko argazkietatik ateratako siluetak danborradakoak dira, eta txarangakoak..."



Eguzkiñe Aldazabal Ortuetak, jaietako kartelarekin, eguaztenean. U.M.Z.

Bai, oso. Adierazpen Artistikoko irakasle naiz DBHn, eta Arkitektura ikasi nuen. Sormenarekin lotutako edozein prozesu asko gustatzen zait. Pintura ikastaroren bat ere egin izan dut, baina ez naiz aditua. Nire oinarria eskuz marraztutako marrazkiren bat izaten da beti, eta gero, ordenagailuz kolorea

eta azken ukituak sartzen ditut. Hil berri den Amaia Arrazolaren marrazkiak asko gustatzen zaizkit, Maite Gurrutxagarenak, Axi hernaniarraren ilustrazioak, Iker Ayestaranenak... Erronka moduan daukat tableta bat erosi eta zuzenean modu digitalean marrazten ikastea... Ea hurrengo urterako!

182 lan aurkeztu dira lehiaketara

Atzo, eguena, egin zuten jaietako kartel lehiaketako sari banaketa. Guztira, 182 lan aurkeztu dira. Ume eta gaztetxoek mailan hiruna sari banatu zituen Udalak, 50, 30 eta 20 euroko kultura-bonuak; helduen mailan, berriz, sari nagusi bakarra, 300 eurokoa.

Soraluzeko Udala pozik dago aurtengo kartel lehiaketaren emaitzarekin. Izan ere, Udalak "bihotzez eskertu" ditu "sormen uholde horretara animatu diren ume, gazte eta helduak".

Zabalik dago uztailearen 18an egingo den moto-topaketarako izen-ematea

Motoclub Plaentxik antolatuta, aurtengoa topaketaren laugarren aldia izango da

U.M.Z. SORALUZE

Uztailearen 18an, zapatua, motozalek beteko da Soraluze, Motoclub Plaentxik orduantxe egingo baitu aurtengo moto-topaketa.

Dagoeneko zabaldu dute izen-ematea, eta motozaleak hasi dira izena ematen. Edozelan ere, topaketaren egunean bertan ere eman ahalgo da izena.

Bi motatoko izen-emateak daude, bazkariarekin ala bazkari barik. Bazkariarekin, 20 euro da prezioa; prezio horretan sartzen dira herri-bazkaria, goizeko moto-ibilaldia eta poteoan

egingo den opari-zozketa. Bazkari barik, berriz, izen-ematearen prezioa 10 euro da.

Herri-bazkaria, Zubi Nagusian

Topaketari dagokionez, uztailearen 18an 10:00etan zabalduko dute izen-ematea, gaztetxean. Ondoren, 11:00etan abiatuko dira moto-ibilaldia egitera. Ibilbidea honako hau da: Sagar Erreka-Elgeta-Elorrio-Arrasate-Soraluze.

Hura bukatutakoan, 12:00etan hasiko dute poteoa, opariaren zozketarekin *-speaker* eta guzti-, eta Latuna Bando txarangaren

musikak girotuta. Eta goiza borobiltzeko, 14:30ean, Zubi Nagusian elkartuko dira, herri bazkarirako. I Love Paella enpresa hernaniarrak prestatuko du. Iaz, 100 bat lagunek parte hartu zuten, eta aurtengo aurreikuspena ere horixe da. Antolatzaileek esan dutenez, herri-bazkarian edozeinek parte har dezake.

Munduko pilotu txapeladunak

Moto-topaketa arratsaldeko moto-trial erakustaldiak borobilduko du, 18:00etan, Zubi Nagusian, eta edozeinek ikus dezake. Lei-



Txisko Asensio diruzaina, Sergio Alonso presidentea eta Mikel Ramos idazkaria. U.M.Z.

datik bertaratuko diren TrialShows enpresako Marcel Justribo eta Jordi Pascuet pilotuek egingo dute, arrapalaz eta oztopoz osatutako zirkuitu berezian. Eskarmentu handia dute bi lagunek pilotu moduan, munduko txapeladun izan dira biak ala biak Na-

zioen Trialean, Europako txapeladun ere bai, eta hainbat mailatan Espainiako txapeladun.

Motoclub Plaentxi elkarteak eskerrak eman nahi dizkie topaketa antolatzen laguntzen dioten babesleei, Udalari eta herriko tabernei.



Mendi martxako zenbait parte-hartzaile bidean. ANDREA PEDROSA



Korrilariak hilerrira bidean. ANDER SALEGI



Aldats pilotalekuan egindako herri bazkaria. EIDER ITXASO



Podiuma. N.B.A.



Izan tribu jarduera. N.B.A.



Baratzuri zopa herri kantaldia. NEREA BEDIAUNAETA

Arrakastatsua izan da euskararen aldeko lehen Zuhatza Trail Eguna

Euskara eta kirola uztartu zituen ekimenak 300 bat parte-hartzaile elkartu zituen aurreko larunbatean, ekainaren 27an; egun osoko egitaraua izan zuen ekimenari buruzko balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek

Nerea Bedialauneta Alkorta

Joan den larunbatean, ekainaren 27an, kirola eta euskara uztartu zituen Zuhatza Trail Eguna egin zuten Deban, lehen aldiz. Zuhatza Debako Euskaltzaleon Mugimendua kideek balorazio "oso positiboa" egin dute. Eguraldia lagun izan zutela eta ez zela ezbeharrik izan aipatu dute. Aldi berean, boluntarioen laguntza eskertu eta parte-hartzaileen "jarrera bikaina" nabarmendu nahi izan dituzte.

08:00etan abiatu zen mendi martxa, eta bi ordu geroago,

mendi lasterketa; biak, Foruen plazatik. Bien bitartean, *Izan tribu* jardueran parte hartu zuten haurrek.

Ordubete azpitik

Mendi lasterketari dagokionez, 139 korrikalarik zeharkatu zuten helmuga. Gizonezkoetan, Mikel Arriola izan zen azkarrena (58.34), eta emakumezkoetan, Leire Olazabal (1.10.09). *Baratzuri zopa* kantaldiak, herri bazkariak eta Mugi panderoa taldearen erromeriak borobildu zuten lehen Zuhatza Trail arrakastatsua.



TchinTchin
UDA

**BESTE 2 BETAURREKO
EURO BAT GEHIAGOAN***

ETA 3.A ZURETZAT EDO OPARITZEKO

AFFLELOU AVENTURERE, AFFLELOU CIAO, AFFLELOU JEAN modeloak

*Eskaintza baliagarria 2026/06/01etik 2026/08/31era arte, Espainiako eta Andorrako Alain Afflelou optika guttiefan. Irudi baldintzak optikan edo afflelou.es-en. Gurasen produktuak sarritan indarrian, eragonez legeria betetzen du 1,25 emagistru-zerbitzua.

ALAINAFFLELOU
Óptica, Audiólogo

**SAN BARTOLOME
KALEA, 10
ELGOIBAR**

943 74 37 34

Eskatu txanda
afflelou.es



Rouhaifa Kassem artista palestinarrak 'Ipuin artistikoak' erakusketa dakar Debara

Lanak gaurtik etzira izango dira ikusgai, Sandra gozoki-dendaren alboko lokalean

N.B.A.

Rouhaifa Kassem artista palestinarrak bere lanak ekarriko ditu berriz ere Debara. Gaur, uztailak 3, 18:00etan irekiko dituzte *Ipuin artistikoak* (*Cuentos artísticos, gaztelaniaz*) izeneko erakusketaren atea. Libanoko errefuxiatu-esparruetan jaiotako sortzaileak Euskal Herriko hainbat herritan aurkeztu ditu bere obrak, eta Deban bigarren izango da; iazko maiatzean ere bertan izan zen.

Lersundi kalean, Sandra gozoki-dendaren alboko lokalean egongo da ikusgai erakusketa, eta etzira arte bisitatu ahal izango da, honako ordutegi honetan: gaur, 18:00etatik 21:00etara; bihar eta igandean, berriz, 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Ekimena Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta du, eta, aditzera eman dutenez, artista



Artista palestinarra eta bere senarra, iaz Deban egin zen ekitaldi batean. MARTIN LORES

bera ere bertan izango da, lanen nondik norakoak azaltzen.

30 pieza

Erakusketak 30 pieza biltzen ditu; tartean, boligrafoz, punta fineko errotuladorez eta marka-

tzaile grafikoekin egindako marrazkiak zein akuarelak. Egilearen hitzetan, lan horiek "lurrari, ondareari, historiari eta bertako betiko erroei lotutako kontakizun artistiko bat" osatzen dute, eta artearen eta

herri baten funtsaren arteko zubia agerian utzi.

Kassemek betidanik izan du konpromisoa bere herriaren kausarekin eta borrokarekin, eta sorkuntzen bidez Palestinako errealtatea islatu nahi izan du. Haren esanetan, ekimenaren helburua artearen eta ondarearen arteko lotura agerian uztea da.

Falafel dastaketa ere bai

Sortzaile palestinarrak erantsi duenez, hartu-eman handia du Debako herriarekin eta bertako herri ekimenarekin. "Gure aliatu nagusia da. Palestinar giroan inspiratutako kultur ekitaldi tradizionalak bultzatzen saiatzen da, eta haren jardueren artean gure gastronomia ere txertatzen du", adierazi du.

Eta harreman on horren erakusgarri, falafel dastaketa antolatuta dute; etzi egingo dute, 12:00etan, erakusketa-gunean bertan. Kassemek hitzetan, artea eta gastronomia uztartu nahi izan dituzte. "Falafela gure kultur nortasunari estuki lotutako plater herrikoi eta tradizionala da, belaunaldiz belaunaldi transmititu dena", zehaztu du.

Erretiratuei zuzendutako bi irteera antolatu dituzte

N.B.A. DEBA ETA ITZIAR

Debako eta Itziarko erretiratuek bi plan izango dituzte aukeran datorren astean. Lehen hitzordua asteazkenean izango da, uztailaren 8an. Egun horretarako, Itziarko Auzo Udalak Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat txoko ezagutzeko egitaraua osatu du. Nahiz eta jarduera bereziki erretiratuei zuzenduta egon, gainerako herritarrek ere parte hartu ahal izango dutela azaldu dute.

Irteeraren prezioa 50 eurokoa da pertsonako, eta izena emateko epea gaur amaitzen da; interesa dutenek harrera bulegoan edo 943 19 92 55 telefonora deituta egin ahal izango dute.

Eguneko plangintzari dagokionez, autobusa 09:00etan abiatuko da, Kanala pareko geltokitik. Lehen geldialdia Etxeberrri jatetxean egingo dute, 11:00etan hamaiketakoaz gozatzeko. Ondoren, Oteiza Museoa bisitatuko dute, eta 14:00etan, Doneztebeko Santamaria jatetxean bazkalduko dute. Arratsaldean Guadalupeko ermitara eta Jaizkibel ingurura joango dira, eta, jarraian, Pasai Donibanera jaitsiko dira. Nahi dutenek txalupaz San Pedrorra igarotzeko aukera ere izango dute. Ibilaldia amaitu ondoren hartuko dute etxerako bidea.

San Fermin jaietara

Uztailaren 9an, bestalde, Arbil Elkarte Sozialekoek urtero antolatzen duten Iruñeko San Fermin jaietarako irteera egingo dute. Parte hartu nahi dutenek elkarte sozialak Berasaluze plazako egoitzan duen bulegoan eman beharko dute izena. Prezioa 55 eurokoa da pertsonako, eta autobuseko joan-etorria eta bazkaria barne hartzen ditu.

Autobusa 08:30ean aterako da, Debatik, hondartzarako sarreatik, eta 08:40an jasoko ditu Itziarko kideak. Goizean eta eguerdian festaz gozatzeko tartea izango dute, eta 15:00etan bazkaria egingo dute, Iruñeko Igeriketa Klubean. Itzulera 22:00etarako aurreikusita dute, zezenetara joan nahi dutenek ere aukera izan dezaten.

Asier Gomez eta Izaro Goñi nagusitu dira XII. FLYSCH Beltza itsas zeharkaldian

193 igerilarik amaitu zuten Mutriku eta Deba arteko 3.000 metro inguruko ibilbidea

Nerea Bedialauneta Alkorta

Udako denboraldiarekin batera, itsas zeharkaldiak hasi dira han eta hemen. Joan den larunbatean, ekainaren 27an, XII. FLYSCH Beltza igeri-zeharkaldia jokatu zen, Eibar Igerixan Kirol Klubak antolatuta. Guztira, 193 igerilarik lortu zuten ibilbidea amaitzea, eta horien artean azkarrenak Asier Gomez ermuarra eta Izaro Goñi leaburuarra izan ziren.

Parte-hartzaileak 13:00etan abiatu ziren, Mutrikuko portutik, igerileku zaharraren ondoko arrapatatik, eta, 3.000 metro inguru osatu ondoren, Debako Santiago hondartzan helmugaratu ziren.

Gizonezkoei dagokienez, Asier Gomezek jantzi zuen txapela; ermuarrak 37 minutu eta 9 segundo behar izan zituen helmugara iristeko. Bigarren Luis Goñi astigarragarra sailkatu

zen (37.53), eta hirugarren, Agustín Iburguren donostiarra (39.14).

Lehen bosten artean

Emakumezkoetan, berriz, Izaro Goñi nagusitu zen, kronometroa 39 minutu eta 18 segundoan gel-

dituta. Gainera, nabarmentzekoa da leaburuarrak sailkapen nagusiko bosgarren postua erdietsi zuela. Podiuma Naroa Osa ondarrutarrak (40.18) eta Anne Sagarmendi azpeitiarrak (43.07) osatu zuten.



Gomez eta Goñi, garaikurrekin. LUIS BERRUETA/FLYSCH BELTZA

Denboraldi berria prestatzen hasteko bilerak antolatu ditu Debasketek

Debasket Saskibaloi Kluba 2026-2027ko denboraldi berrirako motorrak berotzen hasita dago, eta dagoeneko martxan jarri ditu hurrengo hilabeteetarako prestatketa lanak. Kirol elkarterko ordezkariak jakinarazi dutenez, gaur, uztailak 3, taldeen informazio-bilerak egingo dituzte, Kultur Elkartearen, hurrengo denboraldiko antolakuntza, funtzionamendua eta talde bakoitzaren ibilbidea zehazten hasteko.

Deialdiak mailaka antolatu dituzte: 17:30ean, Saski Eskolako txanda izango da -2015 eta 2018 artean jaiotakoak-; 18:00etan, haur mailakoena -2013-2014-; 18:30ean, kadeteena -2011-2012-; eta 19:00etan, nagusi mailako txanda izango da. Azkenik, 19:30ean, urteko batzar orokorra egingo dute.

Klubak dei egiten die interesatu guztiei bileretan parte hartzera, denboraldi berria ahalik eta ondoen antolatzeko eta zailantza guztiak argitzeko.

Gaur gauean abiatuko da Iturri Ondoan, bost ekitaldiz osatutako egitarauarekin

Arineketan taldeak 'Zaharrak berri' aurkeztuko du Plaza Zaharrean, 22:00etan

Izaro Aulestiarte

Beste urte batez, askotariko ikuskizunak izango dira uztailean Debako Plaza Zaharrean. Euskaratik eta euskaraz egindako sormen lanak ardatz hartuta, diziplina askotariko bost kultur ekitaldi iragarri ditu Debako Udalak, Iturri Ondoan egitasmoaren baitan. Ostiral gauetan 22:00etan izango dira guztiak, bat izan ezik; azken emanaldia ostegunez egingo dute, jaiegun bezperan, hilaren 30ean.

Gaur, uztailak 3, hasiko da programazioa, Arineketan taldearen *Zaharrak berri* ikuskizunarekin. Jagoba Astiazararen eta Iñaki Sastreren izen bereko diskoan oinarritutako lana da, musika, bertsolaritza eta dantza batzen dituena. Euskal dantzen erritmo eta doinuak oinarri hartuta, ondare hori eraldatu eta, beti umorez eta dibertsioz, tradiziozko hotsek egun bizi berri bat dutela erakutsi nahian dihardute taldekideek oholtzaz oholtza. Bi aldiz irabazi dute Euskal Herriko Musika Bulegoa saria.

Hilaren 10erako, bertso saioa iragarri dute: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Agin Laburu ariko dira ager-



Diziplina askotariko taldeak taularatuko du *Zaharrak berri*. HAATIK DANTZA KONPAINIA

tokian, *a cappella*, Aimar Kariaren gidaritzapean.

'Begiradak' hilaren 17an

Herritarrek izango dira protagonista hilaren 17ko hitzorduan, hamahirugarren aldiz, tokiko sortzaileen *Begiradak* literatur errezitaldi eta irudien proiektioak girotuko baitu, musikaz lagunduta, Plaza Zaharra.

Aurtengo eskaintza Anduriña Zurutuzak eta Beatriz Egizabalek taularatutako *Jo!* umorezko ikuskizunak eta Odei Barroso *Ødei* musikariaren kontzertuak

borobilduko dute, hilaren 24an eta 30ean, hurrenez hurren.

Egitarauaren berri eman, eta proiektuaren garrantzia azpimarratu du Alazne Txurruka alkateak: "Iturri Ondoan ekimenak gure herriaren arima islatzen du: euskaratik eta euskaraz sortutako kultura bizia. Ez da ekitaldi sorta hutsa, Debako identitate euskalduna indartzeko eta herritarrek artearen inguruan biltzeko modu bat baizik. Udan zehar, sormen eta tradizioaren arteko uztarketa bizi-tzeko aukera izango dugu".



Clara Leton artista, sariketako sustatzaileekin batera. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

Hilaren amaierara arte izango da ikusgai 'Sakona/Lo hondo' erakusketa

Nerea Bedialauneta Alkorta

Clara Leton artistak (Madril, 1998) *Sakona/Lo hondo* izeneko erakusketa inauguratu zuen joan den ostegunean, ekainaren 25ean, elizako klaustroan. Egitasmoa, hain zuzen, Debako Udalak eta herriko artisten kolektiboak elkarlanean antolatutako 2026ko Gazte Artista Bisual Berriak sariketaren emaitza da, eta uztailearen 31ra arte egongo da ikusgai. Sarrera doakoa da eta asteartetik igandera bisitatu daiteke, 17:00etatik 19:00etara, baita eliza irekita dagoen ohiko orduetan ere.

Aurkezpen ekitaldian, egileak piezen xehetasunak, sormen-prozesuaren nondik norakoak eta

lanen antolaketa azaldu zituen. Halaber, erakusketaren egitura eta proposamen artistikoaren oinarriak ere aurkeztu zituen. Artistaren hitzetan, Deban bere lana erakusteko aukera "opari bat" izan da.

30 pieza baino gehiago

Batez ere, pinturan eta material birziklatuen erabileran oinarritutako 30 obra baino gehiago biltzen ditu erakusketak. Pieza gehienak azken urtean sortu ditu Letonek, Pinturako Masterra egiten ari zela, eta azkenaldiko bizipenak, berrelkartzeak eta interes artistikoak islatzen dituzte. "Esperimentazio handia dago atzean", zehaztu zuen.

Deban egin den Ongizatearen Plaza egitasmoari buruzko balorazio oso positiboa egin dute



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak balorazio positiboa egin du joan den astean Foruen plazan egin zen Ongizatearen Plaza egitasmoaren harira. Bi egunez, espazioa herritarren topagune bihurtu zen, eta bertan herritarren ongizateari lotutako hainbat gai jorratu zituzten.

Eider Mendoza diputatu nagusia oso pozik dago ekimenak herrian izan duen harerarekin, eta eskerrak eman dizkie Foruen plazara joan ziren guztiei. Gainera, nabarmendu du ekimena "elkar entzun, hausnartu, iritzia partekatu eta gozatzeko" topagunea izan dela.

Uztailaren 15ean amaituko da Umeen Eguneko danborradan izena emateko epea

Guztira, bost entsegu egingo dituzte abuztuaren 15eko danborrada prestatzeko

Izaro Aulestiarte

Hasiak dira dagoeneko San Roke festen baitan abuztuaren 15ean ospatuko den Umeen Eguneko egitaraua prestatzen. "Egun polita izango da ume eta gaztetxoentzat, hainbat jarduera ari baikara antolatzen; tartean izango dira, adibidez, puzgarriak eta ur parkea, baita Berdinki Zirku konpainiaren *Mikra* ikuskizuna ere. Gainera, herri bazkaria egingo dugu haur, familia eta gaztetxoentzat, catering zerbitzua eskainiz, eta musika ere egongo da, Mugi Panderoaren erromeria izango baita Plaza Zaharrean", azaldu du antolakuntzan diharduen herritar taldeak.

Kalejira eta jaialdia arratsaldean izango dira. 17:30ean abiatuko dira kalez kale, Banda Gaztearen, dultzaineroen eta txistularien laguntzarekin, eta Foruen plazan egingo dute jaialdia, 18:00etan; danborrada, dantzariak eta erraldoi txikiak izango dira protagonista. Ondoren, ogitartekoak banatuko dituzte eta LHko haurrei zuzendutako jolasak izango dira.

Danborradan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago jadanik. Aipatu dutenez, Internet bidez



Foruen plazan egingo dute aurten ere Umeen Eguneko jaialdi nagusia. LAGATAKOA

soilik eman daiteke izena, eta uztailaren 15a da horretarako azken eguna. Interesa dutenek labur.eus/2026koumeeneguna estekan ikusgai dagoen inprimakia bete beharko dute, adina kontuan hartu eta zein postutan parte hartu nahi duten adieraziz. Bertan eman behar da jolasetan parte hartzeko izena ere.

Bost entsegu egingo dituzte danborrada prestatzeko: lehen saioa uztailaren 22an izango da, 19:00etan, Ifar kaleko Luzaro eskolan; uztailaren 29an eta abuztuaren 5ean, 10ean eta 12an izan-

go dira hurrengoak. Hurrekin batera familiek ere parte hartu dezakete danborradan, entsegutan nahiz egunean bertan.

Boluntario bila

Bestalde, Umeen Eguneko ekintzak aurrera eramateko boluntarioak behar dituztela aipatu dute antolatzailerak; laguntzeko prest daudenek danborradan edo jolasetan izena emateko erabilitako inprimaki bera bete beharko dute. Zalantzak argitzeko, debakoumeeneguna@gmail.com posta elektronikora idatz daiteke.

Bihar hasiko da San Roke jaietako kartela aukeratzeko herri-bozketa

I.A.

Debako Udaleko Kultur Sailak izendatutako epaimahaiak aukeratu ditu aurtengo festak iragartzeko hautagai izango diren lau kartelak. Eta, orain, herritarrena izango da hitza. Bihartik asteazkenera bitartean, hau da, hilaren 4tik 8ra, lau proposamenak ikusgai izango dira Turismo Bulegoan, eta gustukoena hautatzeko aukera izango dute herritarrek, bozketa bidez.

Guztira, hamalau kartel aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara, eta horietatik lau pasatu dira azken bozketa fasera: *Po-lainero*, *Festa erraldoia*, *Deba prest*, *ondo pasa* eta *Zezen dantza*. Herritar bakoitzak kartel

bakarraren alde bozkatu ahal izango du, eta boto gehien jasotzen dituen lana izango da abuztuaren 14tik 18ra ospatuko diren jaietako irudi ofiziala. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Sarritu gabeko lanak, berriz, uztailaren 11tik aurrera jaso ahal izango dira, hilabetea amaitu aurretik, udaletxeko harrera bulegoan.

Asteburuko ordutegia

Udalak azaldu duenez, herritarrek modu presentzian soilik parte har dezakete. Bihar, Turismo Bulegoa 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik; igandean, aldiz, 10:00etatik 14:00etara.

'Marea gora' egitasmoko hurrengo hitzaldia, uztailaren 8an

Juan Hernandez Zubizarreta EHUKo irakasle, Latinoamerikako Multinazionalen Behatoki-kide eta Herrien Auzitegi Iraunkorreko laguntzaileak *El nuevo orden mundial y los derechos humanos: entre el caos y la resistencia* hitzaldia egingo du hilaren 8an, 19:00etan, Kultur Elkartean. Asteon hasi den *Marea gora* ekimenaren baitan egingo da saioa.

'Asteazken akustikoak', beste urte batez, Debako gaztetxean

Debako Gazte Asanbladak here-negun abiatu zuen aurtengo *Asteazken akustikoak* egitasmoa, Arramazka taldearen kontzertuarekin, eta beste hiru hitzordu iragarri ditu uztailerako: blues tailerra hilaren 8an, Iruzta taldearen emanaldia hilaren 22an eta Lauterdiren kontzertua hilaren 29an. Gaztetxean izango dira guztiak, 20:00etan.

122 haur ari dira Kolorez Blai euskal udaleku irekietan parte hartzen

I.A.

Astelehenean, hilaren 29an, hasi zituzten Debako Kolorez Blai udalekuak lehenengo txandan izena eman duten HH4-HH5 eta LH1-LH4 mailetako 122 haurrek eta 18 begiralek, eta, harrezkero, hainbat eta hainbat ekintza egingo ari dira egunez egun.

Hauxe esan du Emili Sukiak, lantaldeko koordinatzaileetako

batek: "Giro alaiari hasi dugu aurten ere urteroko kolore festa, eta gustura gabiltza. Ez dugu aspertzeko tarte handirik izango datozen egunotan".

Uztailaren 10ean bukatuko dute lehenengo txanda, eta uztailaren 13tik 24ra bitartean egingo dute bigarrena, HH4-LH6 mailetako ikasleei eskainia; guztira, 129 umek eta 21 begira-

lek hartuko dute parte. Astelehenean ostiralera egingo dira udalekuak, 10:00etatik 13:30era.

Partaide kopuruak, gora

Apirilaren 15ean itxi zuten Debako Udalak eta Zuhatza-Kolore Anitzek elkarlanean antolatutako udalekuetarako izen-ematea, eta hilaren 22an egin zuten haiei buruzko informazio-bilera, udaletxean. Sustatzaileak pozarren daude euskarazko aisialdi eskaintzak izan duen harrerarekin, aurten matrikulazio kopuruak gora egin duela esan baitute.



Haurrak eta begiraleak, udalekuen lehen egunean, astelehenean. N.B.A.

ONDARGAIN
TXIRINGITUA

Gosariak, plater konbinatuak,
pizak, hanburgesak eta
zuzeneko musikal

ARBIL
TABERNA

MITOR
TABERNA

Lersundi kalea 25

ZALBURDI

Arakistain Plaza, 1
943 19 20 03 DEBA

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINITZA

Elgoibar. Sukaldaria behar dugu hanburgesak eta ogitartekoak egiteko, eta zerbitzaria ere bai, tabernarako. Esperientziaduna eta lanerako gogoia duena. 605 32 28 24

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Malgutasun osoa. Titulu soziosanitarioa daukat. 602 490 595

Elgoibar. Zerbitzari lanetan aritzeko prest nago. Esperientzia daukat. 652 33 31 06

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Orduka, arratsaldeetan, gauetan edo ospitalean lan egiteko prest nago. 641 69 23 66

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Asteleheneretik larunbatera. Urteetako esperientzia daukat. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.

SALEROSKETAK

EROSI

Eibar. Helduentzako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 637 58 78 11

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



ERMUA

Oinatz

Zorionak, laztana, zu zara gure etxeko saltsa eta piperminal! Segi beti bezain bizi eta zoriontsu. Muxu handi bat, etxekoen partez. Asko maite zaitugu.



ELGOIBAR

Malen

Zorionak, Malen! Gaur, uztailak 3, lau urte beteko dituzu. Patxo handi-handi bat, etxeko guztion partez, eta, bereziki, Eleneren partez. Asko-asko maite zaitugu!



ELGOIBAR

Libe

Zorionak, Libe, ondo pasa zure eguna! Jarraitu beti bezain jator eta alai. Asko maite zaitugu. Etxekoen, eta, bereziki, Aimarren partez.



SORALUZE

Fernan


Uztailaren 2an, 55 urte. "Ardo onaren moduan, mejoratzen hoia". Hilero San Andres taldeko lagunak.



ELGOIBAR

Julen eta Pili

Zorionak, Julen eta amama Pili, uztailaren 1ean eta 4an urteak betetzen dituzuelako! Ederki ospatuko dugu.



ELGOIBAR

Lara

Zorionak, Lara! Igandean, 12 urte! Muxuak, familiako guztion partez. Maite zaitugu.

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
 - Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
 - Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik



Zorion agurrek saria dute
Barrena-n!


Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko
produktu pertsonalizatuak
zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: OINATZ HIDALGO ELIZONDO

Joan den asteko irabazlea!



HITZ GURUTZATUAK

	Eta, ingelesez		Debabarreneko ibaia		Pozik		Hitz egiteari utzi	
			Ehun		Bokala		Erbioa (kim.)	
	ABIZENA							
	Behartu							
					Jardun			
					Nagusia			
	Kontsonantea		Gipuzkoaren laburdura				Kontsonantea	
	Paper lodi		Haize kolpea					
Hidrogenoa (kim.)	Bukatutzat eman					Paladioa (kim.)		
Emakumezko gurasoa	Bokala					Bokala		
	Aza barietatea						Bokala	
	IZENA						Mago elgoibartarra	
		Iridioa (kim.)		Egilea adierazten duen atzizkia		Nitrogenoa (kim.)		Ukipenez laua
		Landare lekaduna		Erresistentzia		Potasioa (kim.)		
		Lasai						
		Arnasik gabe geratu						
Koipe				Bai, errusieraz		Autonomia Estatutua		
Nerbioa				Informazio unitatea		Harridura interjekzioa		
						Animalia oihu		
						Kontsonantea		
Garai								
					Oinarritzko kolore			

SUJIKO

6		9
	17	15
	18	15
5		

Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbakiaren baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

ERANTZUNAK barrena.eus/denborapasak



Barrena¹

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

BARRENAK bailarako herriko festen inguruko bi ale berezi argitaratuko ditu laster

Zure herriko jaietan herritarrak ondo pasatzera gonbidatu nahi badituzu, edota zure negozioak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak ezagutarazi nahi badituzu, babestu gure edizio berezia eta jarri zure publizitatea gurean

Harremanetarako: 688 769 657 edo publi@barrena.eus-era idatzi

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 3


- **ERMUA Erakusketa: 'Emakume zientzialariak itzalean'** Erakusketan panel elebidunak daude ikusgai, zientziaren arloan ikertzaile handiak izan diren eta diren emakumeen biografiak jasotzen dituztenak. Erakusketa doan da eta Izarra Centren zabalik dagoen ordutegian bisitatu daiteke, 08:00etatik 22:00etara, uztailaren 15era arte.
- **DEBA Mendi irteera bateratua: Pirinioak** Hiru eguneko mendi irteera bateratua antolatu dute Debako Burdin Kurutz Mendi Taldeak, Mutrikuko Burumendi Mendizale Elkartek, Ondarroako Aurrera Mendi Taldeak eta Markina-Xemeingo Artibai Mendigoizale Taldeak. Uztailaren 3an irteera, Debatik, 17:30ean, autobus geralekutik. Uztailaren 4an, Juan Pito-Lakora-Belagua aterpea -18 kilometro eta 1.240 metroko desnibel positiboa-. Uztailaren 5ean, Izaba-Peñablanca (Kakueta)-Izaba -12,65 kilometro eta 865 metroko desnibel positiboa-.

- **DEBA Erakusketa: 'Sakona/Lo hondo', Clara Leton Gil** Honako ordutegi honetan bisitatu ahal izango da, elizako klastroan: asteartetik igandera, 17:00etatik 19:00etara, baita eliza irekita dagoen ohiko orduetan ere. Sarrera doakoa da.
- **DEBA 2026-2027ko denboraldia prestatzeko talde bilerak eta urteko batzarra orokorra** Debasket Saskibalo Klubak deituta, 17:30ean hasita, Kultur Elkartean. Bilerak mailaka egingo dituzte. Ondoren, 19:30ean, urteko batzar orokorra egingo dute.
- **MENDARO Alternative-Forest tekno-festa** Naturaren erdian ospatuko den jaialdi horrek house, elektro eta tekno musika uztartuko ditu. Parte-hartzaileak: Nicolas Lutz, Ivan Smagghe, SONS, Javier Carballo, Kinetic, Ildec, Arista, Borja S, Koldo Intermusic eta Hugo. Sarrerak bi egunetarako: 60 euro -ostirala 30 euro eta larunbata 35 euro-. Ospas-gainen, 18:00etan hasita.
- **DEBA Erakusketa: Rouhaifa Kassem** Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta. Lersundi kalean,



DEBA Iturri ondoan: Arineketan -'Zaharrak berri'-

OSTIRALA 3: Euskal kanta eta dantza zaharrak itxuraldatzen ditu Arineketan taldeak. Hitzekin jolastuz, umorez eta dibertsioz, gure ondarearen gaurkotze bat egiten du, dantza, bertsoaritzak eta musika uztartuz. Euskal Herriko Musika Bulegoa saria eskuratu du birritan taldeak.



SORALUZE Erakusketa: 'Jaietako kartel lehiaketa' -azken eguna-

OSTIRALA 3: Jaietako kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. Haurren, gazteen eta helduen mailetan aurkeztutako kartelak egongo dira ikusgai. Erakusketa aretoan, 18:30etik 20:00etara.

Sandranekue gozoki-denda alboan, 18:00etatik 21:00etara.

- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **DEBA Kontzertua: Hecetu Welo** Ondargain tabernan, 19:30ean.

LARUNBATA 4

- **ELGOIBAR LaRoita erronka** Hasiera Mutrikuko portuan, 09:00etan. Amaiera, Karakaten.
- **DEBA San Roke jaietako kartelen erakusketa eta herri-bozketa** Udalak azaldu duenez, herritarrek modu presentzian soilik parte har dezakete. Gaur, Turismo Bulegoa 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.
- **DEBA Erakusketa: Rouhaifa Kassem** Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta. Lersundi kalean, Sandranekue gozoki-denda alboan, 11:00-15:00 / 18:00-21:00.
- **ELGOIBAR Aiastiako rallysprinta** EME Emakumeak Automobilismoan Elkartek antolatuta. Kalegoen plazan, 13:00etan.
- **ELGOIBAR Euskal selekzioaren aldeko elkarretaratzea** Bolatokian, 13:00etan.
- **SORALUZE Kontzertua: 'Ezoziko Ama**

abesbatzaren udako kontzertua' Eliza atarian, 21:00etan.

- **DEBA Debako Musika Bandaren udako kontzertu berezia** Sune eta Xabi Solano izango dira aurtengo gonbidatu bereziak. Zumardiko karpan, 22:30ean.
- **MENDARO Alternative-Forest tekno-festa** Naturaren erdian ospatuko den jaialdi horrek house, elektro eta tekno musika uztartuko ditu. Parte-hartzaileak: Nicolas Lutz, Ivan Smagghe, SONS, Javier Carballo, Kinetic, Ildec, Arista, Borja S, Koldo Intermusic eta Hugo. Sarrera 35 euro. Ospas-gainen, 16:00etan hasita.

IGANDEA 5

- **DEBA Deba Hiria xake txapelketa** Aldats pilotalekuan, 10:00etan.
- **DEBA San Roke jaietako kartelen erakusketa eta herri-bozketa** Udalak azaldu duenez, herritarrek modu presentzian soilik parte har dezakete. Gaur, Turismo Bulegoa 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.
- **DEBA Erakusketa: Rouhaifa Kassem** Deba-Palestina herri ekimenak antolatuta, Lersundi kalean, Sandranekue gozoki-denda alboan.

11:00-15:00/18:00-21:00. 12:00etan hasita, gainera, falafel dastaketa izango da.

- **MENDARO Olaia eta June bikoaren kontzertu akustikoa** Gazte Asanbladak antolatuta. Gaztetxe aurreko aparkalekuan, 19:00etan.

ASTELEHENA 6

- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Itziarko Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **MENDARO Santanetarako danborradetako entseguak** Frontoian. Haurrena, 19:00etan, eta helduena, 21:00etan..

ASTEARTEA 7

- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Itziarko Gaztelekuak antolatuta.



ELGOIBAR Urazandiko jaiak

OSTIRALA 10: 19:00etan, jaien hasiera, Urazandiko parkean. Segidan, txapel, igel-toka, chaves eta ping-pong txapelketak. Herri Eskolan. 19:30ean, pintxo-potea, eta disko-festa DJ Tillarekin. 00:00ean, DJ f:no.love.official. 01:00etan, DJ Tilla.

LARUNBATA 11: 10:00etan, puzzle lehiaketa. 12:00etan, Josejuren historiaurreko erakustaldia. 13:00etan, kalejira, Mauxitxa txarangarekin. 14:30ean, herri bazkaria. 16:30ean, dantzaldia eta mariatxiak. 17:00etan, Irati eskulan tailerra, altxorraren bila. 18:00etan, buruhandiak, Urazandi parkean eta Herri Eskolan. 19:00etan, 80ko eta 90eko musika. 22:00etan, kontzertua: Brilet. 00:00etan, DJ Tilla.

IGANDEA 12: 11:00etan, haur parkea eta apar festa. 13:00etan, salda eta txorizoa. 15:00tan, otarrearen zozketa. 19:00etan, suziriak, jaiak amaitzeko.

Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

- **MENDARO antzerki tailerra** Gazte Asanbladak antolatuta. Gaztetxean, 18:30ean hasita.

ASTEAZKENA 8

- **ITZIAR Erretiratuentzako irteera Gipuzkoa eta Nafarroa aldera** Erretiratuei zuzenduta, baina gainerako herritarrek ere parte hartu ahal izango dute. Irteeraren prezioa, 50 euro pertsonako, eta izena emateko epea uztailaren 3an amaitzen da. Informazio gehiago, harrera bulegoan edo 943 19 92 55 telefonora deituta. Autobusa 09:00etan abiatuko da, Kanal pareko geltokitik.
- **DEBA Marea Gora hizaldi zikloa: 'El nuevo orden mundial y los derechos humanos: entre el caos y la resistencia'** Juan Hernandez Zubizarreta Kultur Elkartean, 19:00etan.
- **DEBA Asteazken Akustikokoak: Blues tailerra** Pintxo-potea ere



ERMUA Sallabenteko jaiak

ASTEAZKENA 8: 19:00etan, pintxo-lehiaketa, auzoan dauden tabernetan: Salmantino, Niza, Itxaso, Amanxtxi eta Zugaitz. Hotel Villa de Ermua lehiaketatik kanpora ere pinyxia izango du.

OSTEGUNA 9: 18:00etan, haurrentzako jolasak, Inguru Abenturaren eskutik. 19:00etan, pintxo-lehiaketa, auzoan dauden taberna hauetan: Salmantino, Niza, Itxaso, Amanxtxi eta Zugaitz. Hotel Villa de Ermua lehiaketatik kanpora ere pinyxia izango du.

OSTIRALA 10: Erdi Aroko Azoka Handia. 17:00etan, haur parkea. 19:00etan, gaita-poteoa, kalejirarekin, Eibarko Ar Burgas eta Galiziako kultur etxeko Os Galaicos gaitari taldearen eskutik. 19:30ean, Sallabenteko jaien hasiera. 20:30ean, Movida Promovida diskoteka, mugikorra 21:30era arte. 23:00etan, azokaren itxiera, eta festak aurrera egingo du Movida Promovida diskoteka mugikorrarekin, 03:00rak arte.

LARUNBATA 11: 11:00etan, Erdi Aroko azokaren irekiera. 12:30ean, 80ko hamarkadako bermuta otarrainxkarekin. 18:00etan, animazioa auzoan zehar, Irulitza txarangaren eskutik. 19:00etan, sardina eta sailheski jan herrikoia. 23:00etan, azokaren itxiera. 23:00etan, dantzaldi handia, Phoenix Gira Fortuna 2026 orkestraren eskutik, 03:00rak arte. Atsedendaldian, bingo handia egingo da.

IGANDEA 12: 11:00etan, Erdi Aroko azokaren irekiera. 11:30ean, animazioa auzoan zehar, Andrajozak + Sorginkada + BesFemband batukada feministaren eskutik. 12:00etan, paella lehiaketa –izen ematea, auzoko tabernetan–. Arroza Jai Batzordeak jarriko du. 12:30ean, Igel Txapelketa haurrentzat. 13:00etan, omenaldia auzoko pertsona ospetsu bati. 13:00etan, apar festa, 14:00ak arte. 13:30ean, postre lehiaketa, patioan. 13:30ean Igel Txapelketa helduentzat. 18:30ean, sardina eta sailheski jan herrikoia. 19:00etan, mokadua hirugarren adinekoentzat. 19:30ean, Versionarios taldearen kantaldia, 21:00ak arte. 22:00etan, azokaren itxiera eta jaien amaiera.

- emango dute. Gaztetxean, 20:00etan.
- MENDARO Santanetarako danborradetako entseguak** Frontoian. Haurrena 19:00etan, eta helduena, 21:00etan.
- MENDARO Gaubeila** Gazte Asanbladak antolatuta. Santa Kurutzen, 21:00etan.

EGUENA 9

- ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Isiltasunaren

- Eskolako topaketa. Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.
- DEBA Umorezko ikuskizuna: Asier K** Sarrera: 5 euro. Internet bidez salgai: www.labur.eus/asierkstandup. Kultur Elkartearen, 20:00etan.
- ITZIAR San Fermin jaietara irteera** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Aldez aurretik izena eman behar da. Prezioa: 55 euro. Irteerak: 08:30ean, Deban, hondartzak sarreratik; eta



MENDARO V. Mendaroko Garagardo Azoka solidarioa: 'Zerumugaren gainetik'

Gipuzkoako senitartekoek, lagunak eta alzheimerria edo beste demenziaren bat duten pertsonen elkartearen alde.

OSTEGUNA 9: *Zerumugaren gainetik* Mendaroko V. Garagardo Azokaren aurkezpena. 17:00etan, haurrentzako mahai-jolasak eta Leire Lazkanoren *Galdutako harrien bila* jolasaren aurkezpena, Goñati frontoian. 18:30ean, alzheimerri buruzko hitzaldia, Afagiko profesionalen eskutik, Uztargi Terrazaren barnealdean. 20:30ean, Afagi elkartearen aldeko afaria. Aspanogi elkarteari aurreko urteko *Pirata txiki handiak* azokan bildutako dirua emango diote.

OSTIRALA 10: Enpresaren Eguna. 13:00etan, enpresen herri bazkaria. Luntxa, bermuten dastaketa, jolasak, zozketak eta sorpresak. 18:00etan, arratsalde-pasa, DJ Estherrekin, Uztargiko arkupeetan. 20:30ean V. Garagardo Azokaren elkartasun afaria, Afagiren alde. Erreserbak, Uztargin (943 03 01 50). 00:00etan, Remember Oraiko by DJ Esther Uztargi, terrazan.

LARUNBATA 11: Herriaren Eguna, Cantabria Chapterren elkarlan bereziarekin. 09:00etan, II. Motorzaleen elkartasun kontzentrazioa, Herriko Enparantzan. 11:00etan, bertako artisautza erakusketa, Goñati frontoian. 12:00etan, Cantabria Chapterrek antolatutako moto irteera. 14:00etan, V. Garagardo Azokaren elkartasun bazkaria, Afagiren alde, jolas, zozketa eta sorpresek. 20:30ean, Mendaroko V. Ongintza herri afaria, zozketa eta sorpresek.

IGANDEA 12: Haurren Eguna. 11:00etan hasita, bertako artisautza erakusketa, Goñati frontoian. 13:00etan, V. Garagardo Azokaren elkartasun bazkaria, Afagiren alde. 17:00etan, Leire Lazkanoren *Aurkitutako harrien* erakusketa, Chocolates St. Geronek oparitutako txokolate-janarekin.

08:40an, Itziar autobus geltokitik. Itzulera 22:00etan izango da.

OSTIRALA 10

- ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: gotatanta.eus. Whatsappez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- MENDARO Odol ateratzea** Txanda hartzeko: gotatanta.eus edo

- uztailaren 9an, 11:00etatik aurrera: 632 40 37 95. Ikastolan, 16:30etik 20:30era.
- ITZIAR Frontenis txapelketa** Itziariko Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- DEBA 'Iturri ondoan': bertso saioa** Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Agin Laburu. Gai-jartzailea: Aimar Karrika. Plaza Zaharrea, 22:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 3 BARIKUA Oruesagasti / L. Apraiz / A. Alcalá
- 4 ZAPATUA Barrenetxea / L. Apraiz / M. Alves
- 5 DOMEKA Barrenetxea / L. Apraiz / M. Alves
- 6 ASTELEHENA Soto / H. Burgoa / I. Lecumberri
- 7 MARTITZENA Garitaonandia / H. Burgoa / A. Alcalá
- 8 EGUAZTENA Arriola / H. Burgoa / I. Ugarte
- 9 EGUENA Garitaonandia / H. Burgoa / A.M. Baz
- 10 BARIKUA Yudego / A. Zalduegi/ M. Alves

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

- Deba:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziar botikina:** 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

- KALEGOEN PLAZA (Aire libreko zinema)
- 'La tarta del presidente'** Ostirala, 3: 22:30
- 'Buffalo kids'** Larunbata, 4: 22:30

EIBAR


- COLISEO ANTZOKIA
- 'Obsession'** Ostirala, 3: 20:00. Larunbata, 4: 17:00, 19:45, 22:30. Igandea, 5: 17:00, 20:00. Astelehena, 6: 19:30.
- 'Minions & Monsters'** Ostirala, 3: 20:00. Larunbata, 4: 17:00, 19:45, 22:30. Igandea, 5: 17:00, 20:00. Astelehena, 6: 19:30.
- 'Los últimos días de María Antonieta'** Ostirala, 3: 20:00. Larunbata, 4: 17:00, 19:45, 22:30. Igandea, 5: 17:00, 20:00. Astelehena, 6: 19:30.

SORALUZE

- PLAZA ZAHARRA (Aire libreko zinema)
- 'Faisaien irla'** Ostirala, 3: 22:30

ERMUA

- SAN PELAIO PLAZA (Aire libreko zinema)
- 'Momiak'** (Euskaraz) Astelehena, 6: 21:00
- 'Campamento Garra de Oso'** Asteazkena, 8: 21:00



Momiak

AZKEN BERBA

Ez begiratu beste aldera



NAIA AIZPURUA
ITAIAKO KIDEA

Uda iristearekin batera, gure eskualdeko herriak jai giroan murgiltzen dira. Zapiak lepoan, txosna muntaketa, kuadrilla arteko bazkariak... eta urte osoan zehar espero izan ditugun egunak iristen dira. Gure eskualdean, gainera, uda herriz herriko jaien sinonimoa da.

Baina jai giroarekin batera beste errealitate bat ere itzultzen da urtero; eraso matxistak, adibidez. Eraso hauek ez dira jaietako ezustekoak; gure gizartean errotuta dagoen indarkeriaren adierazpen gordinak dira. Izan ere, sarritan alkohola aitzakia bihurtzen da eta erasotzaileen erantzukizuna ezkututzen du.

Galdera ez da soilik zer egin eraso bat gertatzen denean. Galdera da zein jarrera hartzen dugun erasotzailea gure kuadrillakoa edo gure gertukoarena. Isilik geratzen gara? Beste aldera begiratzen dugu?

Horregatik, ez da nahikoa erasoak gaitzestea. Aurrea hartzea dagokigu, elkar babesteko tresnak indartzea eta erantzun irmoak ematea. Jaiak benetan denonak izan daitezten, antolakuntza ezinbestekoa baita.

Indarkeria matxistaren aurka, antolatatu!

BUKATZEKO

Baserri-animaliak zaindu eta erretiro gozoa ematen diete Tximas santutegian

Animalien babeslekuari laguntzeko jaialdia egingo dute Sorluzeko gaztetxean

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Uztailaren 11n, zapatua, Sorluzeko gaztetxean jaialdia egingo dute, Jone Arruabarrenak (Sorluz, 1991) antolatuta. Musika, jan-edana, ikus-entzunezkoa, *merchandising*-a... denetarik izango da eguerditik ordu txikiak arte, guztia kausa ezohiko baterako dirua batzeko: Tximas animalien babeslekuarentzat.

Ahuntzak, oilarrak...

2022an sortu zuten Tximas babesleku-santutegia Angel Artetxek (Zestoa, 1978) eta Antero de Javierrek (Bilbo, 1969), eta, orain dela hamar hilabete, Bergarako Basalgo auzoko Telleria baserri-ira lekualdatu ziren, han leku aproposagoa dutelako babesleku eta bizitokia batera izateko.

Zestoa zizutzen 250 animalia eraman dituzte Basalgora, eta orain, 300 bat daude. "Leku handiagoa, animalia gehiago; baina har dezakegunaren mugaren mugan gaude", diote.

Ahuntzak, ardiak, ahateak, oiloak, oilarrak, usoak, poneyak, astoak, tortola bat, zaldiak, antzarak, untxiak, txakurrak eta katuak dituzte. "Txakurrak eta katuak oso salbuespen gisa hartzen ditugu, haiendako badaude-eta aterpetxeak", esan dute.

Artetxek eta De Javierrek, batik bat, baserrietako eta etxaldeetako animaliak artatzen dituzte. "Gizartea oso espezista da. Txakurrak eta katuak etxean bat gehiago izango balira bezala ditugu, eta, aldiz, ez zaigu axola



Angel Artetxe, Antero de Javier eta Jone Arruabarrena, ardiekin, Telleria baserrian.

jaten ari garen behiak izan duen bizimodua, eta txakurrek eta katuek bezala sentitzen dute behiek. Adibidez, hiltegieta kristalak jarriko balituzkete... Argi dago makroetxaldeak kalte handia egiten ari zaizkiela animaliei, ingurumenari eta pertsonari; izan ere, jaten ari garen okelak antibiotikoak, antiinflamatorioak, hormonak... dauzka. Ni baserriko semea naiz [Angel], eta badakit horretaz. Diru asko mugitzen du, negozioa da dena. Guk nahi duguna da errespetua izatea animaliekiko, haiek ere bizi nahi dutelako. Guk ez dugu animaliarik jaten eta ez gaude animaliak esplotatzearen alde".

Erretiro gozoa

Tximas babeslekuan laguntza behar duten animaliak hartzen dituzte, berrogeialdian jarri, parasitoak hil, identifikazioa

jarri, eta berriro ere libre laga ezin den kasuetan, bertan izaten dituzte, erretiro gozoan, hil arte.

Tximasen bizi da, adibidez, *Rosalía* ardia, urteetan artilea eta azazkalak moztu barik izan zutena; *Aingeru* akerra, tratu txarrak ematearren Zaragozako gizonezko bati kendu, hiltzat eman eta botatzera zihoazena; Cadiztik eraman zuten *Mani* ahuntza ere bada; badituzte ere borrokarako erabilitako bi oilar, batek buru zati bat galduta, eta bakoitza bizitoki baten, ezin baitira beste ezerekin bizi duten

"Katuak eta txakurrak etxeko bat gehiago bezala ditugu, baina ez zaigu axola zelan bizi den jaten dugun behia"

traumaren ondorioz; eta hiru hankadun *Sari* txakur leial eta bizia ere Tximasen bizi da.

Hogei bat boluntario

Batez ere, sare sozialen bitartez jotzen du jendeak Tximasera; baita Espainiako babesleku-santutegi sarea baliatuta ere. Tximas moduko 30 bat babesleku daude –Euskal Herrian bakarra–, eta boluntario asko inguruan. Tximasek, adibidez, hogei bat boluntario ditu. Gertukoena Sorluzetik eta Arrasatetik doaz; gainerakoak Usurbil-Donosti ingurukoak, Bilbo ingurukoak edo Nafarroakoak dira.

Lan kontuengatik, asteburuetan joaten dira boluntario gehienak, eta garbitasunak, itxiturak, konponketak eta halakoak izaten dituzte zeregin.

Dirulaguntza barik

Jone Arruabarrena sorluzetarrak, adibidez, orain dela hainbat hilabete ezagutu zituen Artetxe eta De Javier, Eibarren, zezeketen kontrako manifestazio batean. Arruabarrenak betidanik nahi izan du animalien santutegi batean lagundu, eta, Tximas ezagutu zuenean, Zestoa hasi eta Basalgon segitzen du.

Fisikoki ez ezik diru aldetik ere lagundu nahian, jaialdia antolatzen dihardu Sorluzen, Tximas santutegiak ez baitu inolako dirulaguntzarik, ezta ordainpeko langilerik ere. Finantzaketa donazioetatik eta Artetxeren soldatetik dator, eta De Javierrek dihardu langile, botikak eta arreta konstantea behar dituzten animaliak zaintzen etengabe. Halaber, jaialdiarekin zera lortu nahi dute, "inguruko herrietako jendeak ikustea hau dagoela hemen. Egon-go da jende gehiago halako proiektu batean parte hartu nahi duena", dio Arruabarrenak.



egunean behin

Batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!

7. asteko saritua: Ainara Sanchez (Elgoibar)

Saria: Asier K umoregileak Debako Kultur Elkartearen eskainiko duen bakarrizketa saiorako bi sarrera